

**KATALUNIA, GALIZIA ETA EUSKAL  
HERRIKO NAZIONALISMO  
MINORIZATUEN GARAPENA ARO  
GARAIKIDEAN (FRANKISMORA  
ARTE): IKERKETA KONPARATIBOA**

## Aurkibidea

1. HIRU MUGIMENDU NAZIONALISTEN GARAPENA FRANKISMOAREN GARAIA BAINO LEHEN .....	4
1.1 XIX. MENDEAN. TESTUINGURU OROKORRA .....	4
1.1.1. KATALUNIA .....	5
1.1.2. GALIZIA .....	8
1.1.3. EUSKAL HERRIA .....	10
1.1.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUN ETA EZBERDINTASUNAK).....	11
1.2. 1898TIK LEHEN MUNDU GERRARA (1914-1918). TESTUINGURU OROKORRA 12	
1.2.1. KATALUNIA .....	12
1.2.2. GALIZIA .....	14
1.2.3. EUSKAL HERRIA .....	15
1.2.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK).....	17
1.3 LEHEN MUNDU GERRAREN BUKAERATIK II. ERREPUBLIKARA (1918-1931). TESTUINGURU OROKORRA .....	19
1.3.1. KATALUNIA .....	19
1.3.2. GALIZIA .....	22
1.3.2. EUSKAL HERRIA .....	26
1.3.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK).....	27
1.4 BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GUDA ZIBILA (1931-1939). TESTUINGURU OROKORRA .....	28
1.4.1. KATALUNIA .....	28
1.4.2. GALIZIA .....	30
1.4.3. EUSKAL HERRIA .....	33
1.4.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK).....	34
2. HIRU MUGIMENDU NAZIONALISTEN GARAPENA FRANKISMOPEAN .....	35
2.1. KATALUNIA .....	36
2.2. GALIZIA .....	38
2.3. EUSKAL HERRIA .....	42

2.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK): NAZIONALISMO ERRADIKAL BERRIA (1959-1975).....	44
---	----

# 1. HIRU MUGIMENDU NAZIONALISTEN GARAPENA FRANKISMOAREN GARAIA BAINO LEHEN

## 1.1 XIX. MENDEAN. TESTUINGURU OROKORRA

Gaur egun, nazionalismoa ikertu duten autoreek aho batez lotzen dute fenomeno hori XIX. mendean izan zen kapitalismoaren garapenarekin eta liberalismo politikoaren hedapenarekin. Mende horretan, Europako mendebaldean, mugimendu nazional ugari sortu ziren.

Frantziako Iraultzaren ondorioetako bat iraultza burgesak izan ziren, eta, horrekin batera, nazionalismo berriak azaldu ziren: 1820an, 1830ean eta, batez ere, 1848an. Azken horri “Nazioen Udaberria” esan zitzaion, nazionalismoak hartu zuen indarragatik. Gehienek izaera sakabanatzailea izan zuten, (Belgika, Grezia, Hungaria, Polonia, etab.); beste batzuk, ordea, bateratzailea (Alemaniaren eta Italiaren batasun prozesuak).

Espainiar estatuari dagokionez, kapitalismoa oso mugatua izan zen. Gainera, Erregimen Zaharra eta liberalismoaren arteko norgehiagoka gerra bihurtu zen, eta aurrez aurre borrokatu ziren hiru guda karlistetan (1833-1840, 1846-1849 eta 1872-1876). Katalunian eta, batez ere, Euskal Herrian, gerra horiek, ordura arteko lege eta usadio propioen defentsaren aldekoak izan zirenak, denborarekin, mugimendu nazionalistaren nolabaiteko aurrekari izan ziren.

Aldi berean, Espainiako estatu liberalen sorrerak, eta, horrekin batera, sistema uniformizatzaile zentralistaren garapenak lehengo erreakzioak piztu zituzten. Esaterako, Euskal Herriko hegoaldean ia inolako eraginik izan ez arren (lurrealde historikoetan banatuta zegoelako), 1833an Javier de Burgosek frantziar erara diseinatutako probintzien banaketa artifizialak kontrako erreakzioak eragin zituen, ez zuelako inolako zerikusirik barne-antolamendu historikoarekin. Galizian (Coruña, Lugo, Ourense eta Pontevedra), adibidez, Bierzo zona kanpoan utzi zuen eta Katalunian (Bartzelona, Tarragona, Lleida eta Girona), “Franja de Ponent” deitutakoa, katalanezko hiztunak nagusi izan arren.

## 1.1.1. KATALUNIA

### AURREKARIAK

Historiografikoki, **bi korrante nagusi** garatu dira katalanismoa azaltzeko:

**Alde batetik**, 1960ko hamarkadan, unibertsitate-giroan, marxismoa nagusitu zen. Horrekin batera, Jordi Solé Turak (*Catalanisme i revolució burgesa*, 1967)<sup>1</sup> defendatzen zuen tesiak arrakasta handia lortu zuen. Bertan, nazionalismoa mugimendu burgesa baino ez zela adierazten zuen, hots, Kataluniaren kasuan, bertako burgesiak Espainiako merkatua menderatu nahi zuen, eta ezinezko izan zitzaionean, nazionalismoa sortu zuen, frustrazioaren ondorioz. Hurrengo hamarkadetan, <Katalanismoa=mugimendu burgesa> leloak eragin handia izan zuen ezkerreko alderdi akademiko zein politikoetan.

**Beste aldetik**, Josep Termes historiagilearen arabera,<sup>2</sup> burgesiak bere egin baino lehenago, katalanismoa mugimendu herrikoia zen, eta zentralismoaren eta administrazio berriaren aurrean erresistentzia bilakatu zen, besteak beste, hizkera ezberdin eta propioa mantentzeko ahaleginetan.

### KATALANISMOAREN ILDOAK XIX. MENDEAN

XIX. mendean Borboien monarkia berrezarri baino lehenago (1874), bi ildo bereiz daitezke katalanismoaren hastapenetan:

**Ildo linguistiko-kulturala.** Erromantizismoaren modari jarraituz, *Renaixença* mugimendua hasi zen (horrelako mugimenduak Katalunian ez ezik, beste gutxiengo nazionaletan ere izan ziren, adibidez, Okzitanian, Frederic Mistralek deitutako *felibrige* mugimenduarena). Katalanaren berreskurapena aldarrikatzen zen, hizkuntza, propioa, modernoa eta literarioa bultzatuz. Hala ere, Joan-Lluís Marfanyen ustez,<sup>3</sup> Kataluniako elite burgesek liberalismo politiko espainiarrarekin bat egiten zuten, eta ez zuten inolako proposamen politiko katalanistarik. *Renaixença*ren ekintza nagusiak hauek izan ziren:

---

<sup>1</sup> SOLÉ TURA, Jordi: *Catalanisme i revolució burgesa*, 62, Bartzelona, 1967.

<sup>2</sup> TERMES I ARDÉVOL, Josep.- *Federalismo, anarcosindicalismo y catalanismo*, Anagrama, Bartzelona, 1976.

<sup>3</sup> MARFANY, Joan-Lluís: *Nacionalisme espanyol i catalanitat. Cap a una revisió de la Renaixença*. 62, Bartzelona, 2017.

- Bonaventura Aribauern *Oda a la Pàtria* (1833), non lehengo aldiz “aberria=hizkuntza propioa” defendatzen zen. Poema horrekin hasi zen *Renaixença* mugimendua.
- *Testamentu Berria*, katalanera itzulia (1832)
- Lehenengo Lore Jokoak (1859)
- Antoni M. Clavéren koral herrikoiak (1864)
- *La Campana de Gràcia*, katalanez idatzitako lehenengo aldizkaria (1870).
- Literaturan, Frederic Soler “Pitarra”ren antzerki obrak, Àngel Guimeràren dramak, Narcís Oller-en nobela realista eta Mossèn Jacinto Verdaguer-en poesia.

**Lehenengo elkarte patriotikoen agerraldiaren ildoak:** 1870ean, La Jove Catalunya elkarteak sortu zuten Àngel Guimeràk eta Pere Aldavertek eta baita elkartearen bozeramailea izango zen *La Renaixença* egunkaria (1881) ere.

Aipatzekoak dira, bestalde, garai horretan garatu ziren bi mugimendu politiko, Katalunian indarra eta izaera propioa hartu zutenak. Hurrengo urteetan, biak nazionalismoaren oinarri eta sustrai ideologiko oso inportanteak bihurtu ziren, bakoitza polo bere erreferentzia eta interesguneekin:

- **Federalismoa.** Errepublikanismo federala 1869an lehenengo indar politiko bilakatu zen Katalunian; mugimendu horren lider historikoa Bartzelonako Francesc Pi i Margall izan zen; hura eta Estanislau Figueras, berak batzelonarra, Espainiako Lehen Errepublikako presidentek izan ziren (1873), baita Katalunian ere. Urte berean Estat Català aldarrikatu zen, Iberiar Federazioaren barruan.
- **Karlismoa.** Euskal Herrian bezala, Katalunian ere, galdutako foruen defentsa karlismoaren osagai garrantzitsua bihurtu zen. Gainera, 1872an, Karlos VII.ak Aragoiko Koroa historikoa (Aragoi, Valentzia, Katalunia eta Mallorkako Erresuma) aldarrikatu zuen.

Gauzak horrela, Borboien monarkia berrezarri zen eta, garai horretan, 1874tik 1898ra bitartean, honako korrante, pertsonaia eta mugimendu hauek azaldu ziren:

- **Korrante foruzalea eta erregionalista moderatua.** Joan Mañé i Flaquer zen buruzagi nagusia.
- **Korrante federal errepublikarra.** 1876an, F. Pi i Margallek bere obra nagusia argitaratu zuen (*Las nacionalidades*) federalismoaren ideietan oinarrituta. Piren federalismoaren jarraitzailea zen Valentí Almirallek katalanismoa bultzatu zuen, honako ekimen hauen bidez:

- ✓ 1879an, *Diari Català*, lehenengo egunkaria katalanez.
- ✓ 1880an, Primer Congres Catalanista, fronte katalanista moduko bat.
- ✓ 1882an, Centre Català, lehenengo elkarte zibiko katalanista.
- ✓ 1885ean, *Memorial de Greuges* aldarrikapena, libreganbismoaren aldekoa eta Alfonso XII erregeari zuzendutakoa.
- ✓ 1886an, *Lo Catalanisme*, erregionalismoaren aldeko lehenengo idazki doktrinala; bertan autonomia politikoa aldarrikatzen zen.

- **Korronte tradizionalista eta katolikoa (*vigatanisme*).** Torras i Bages gotzaiak 1892an *La Tradició Catalana* idatzi zuen, “Catalunya serà cristiana o no serà” leloarekin, eta *La Veu de Montserrat* aldizkaria hasi zen argitaratzen.
- **Korronte separatista.** Josep Narcís Roca i Farreras izan zen aitzindaria. Federalista izan arren, Estat Català konfederala aldarrikatu zuen; jarrera aurrerakoia eta errepublikarra izan zuen, eta, gainera, badirudi Herrialde Katalanen egitura aipatzen duen lehendabizikoa bera izan zela.

1890eko hamarkadatik aurrera, katalanista eta liberalak ziren gazte unibertsitarioak (Enric Prat de la Riba, Narcís Verdaguer i Callís, Josep Puig i Cadafalch, Francesc Cambó eta Lluís Domenech i Montaner) protagonismoa kentzen hasi ziren errepublikanismoari, 1887an La Lliga de Catalunya elkarte katalanista sortu zutenean. 1891an Unió Catalanista eratu zen, elkarte katalanista guztiak batzeko asmoz. Hurrengo urtean, UCK *Les Bases de Manresa* idatzi zuen (Kataluniako erregiorako sasi-konstituziotzat jo daitekeena). Honako hauek ziren ardatz nagusiak:

- Katalana hizkuntza ofizial bakarra zen.
- Ordena publikoa eta fiskaltza Kataluniaren menpe izatea nahi zuten.
- Izaera tradizionalista zuen (ordezkaritza, familia-buruena; ez sufragio unibertsala).

1895ean, Enric Prat de la Ribak eta Pere Muntanyolak *Compendi de Doctrina Catalanista* idatzi zuten. Katalunia nazio moduan definitzen zuten, nahiz eta orduan “pàtria” hitza erabili (liburuak auziperatze-autoa eta 100.000 aleren bahiketa administratiboa jasan zuen).

## 1.1.2.GALIZIA

Kataluniaren antzera, **Rexurdimento** literatura-mugimendua sortu zen XIX. mendean:

- 1853an, *A gaita galega*, Juan Manuel Pintosek galegoz idatzitako lehenengo liburua.
- 1861ean, Galiziako lehenengo Lore Jokoak antolatu ziren A Coruñaan. Poesia arlokoak galegoz idatziak izan ziren; ez, ordea, prosazkoak.
- 1863an, Rosalia de Castrok *Cantares Gallegos* idatzi zuen, errenazimendu literarioarentzat jauzi kualitatiboa izan zena.
- 1865ean, Rosalia de Castroren senarrak, Manuel Murguiak, *Historia de Galicia* liburuko hitzaurrean, Galiziaren definizio protonazionalista eman zuen. Urte batzuk lehenago (1838an), tradizio historizistari jarraituz, Jose Vereak i Aguiarrek, *Historia de Galician*, jatorri zeltikoen lehenengo aipamenak jaso zituen.

Manuel Murgiaren klasifikazio klasikoari jarraituz, bi etapa aurre-nazionalista bereiz daitezke XIX. mendean:

**Probintzialismoa.** Probintzialismoaren barruan hiru joera nagusi nabarmendu daitezke:

A.-) **Lehenengo probintzialismoa** 1840ko hamarkadaren hasieran sortu zen, liberalismo progresistaren barruko joera gisa. Santiagoko ikasle unibertsitario eta liberal batzuek –Academia Literaria taldean biltzen zirenak– Galiziaren lehenengo definizio historiko-kulturala egin zuten, eta, ondoren, Galizia probintzia politiko-administratibo bakar gisa aldarrikatu zuten. Hori guztia, Javier de Burgosek egindako Espainiaren banaketa administratiboaren aurkako erreakzioa izan zen. Santiagoko ikasle haiek, Galiziako Erresuma zaharra gogoratuz, sistema liberal demokratikoa eta deszentralizatuaren aldeko pertsonaia bihurtu ziren. Izen aipagarrienak honako hauek izan ziren: **Anton Faraldo** (liberal erromantikoa, gizarte kristaua eta historizismoaren aldekoa), **Antonio Neira de Mosquera** eta **Francisco Añón**.

Talde horrek bat egin zuen 1846an izan zen pronuntziamendu militar liberal progresistarekin. Pronuntziamendu horren burua Miguel de Solís komandanteak, Junta Superior da Provincia de Galicia aldarrikatu zuen. Pronuntziamendu horrek huts egin eta gero, fusilatua izan ziren Solis bera eta haren ofizial nagusiak (“Fusilados do Carral”). Urteak pasa ahala errexionalistek pronuntziamendu liberal progresista hura mitifikatu zuten Galiziako Erresuma zaharra gogoratzeagatik, fusilatuen artean galiziar bat ere egon ez arren.

B.-) **Bigarren probintzialismoa**. **Manuel Murguia**, **Eduardo Pondal** eta **Rosalía de Castro** izan ziren partaide nagusiak, Santiagoko Unibertsitateko Liceo de la Juventud taldeko ikasleak ziren. Talde horren abiapuntu mitikoa Banquete de Conxo ekitaldia izan zen (Sabino Aranak egin zuen Larrazabalgo diskurtsoarekin paralelismoa argia zuena). 1856ko martxoaren 2an egin zen, eta, bertan, Eduardo Pondalek, erderazko poema bat irakurri zuen ikasle eta zenbait langileren aurrean (baliteke partaideen artean Rosalía de Castro egon izana). Ez zuten sortu elkarte edo alderdi politikorik, baina haien ideiak egunkarietan eta liburuetan zabaltzen zituzten. Ikuspegi demokrata-progresista zuten. Honako hauek izan ziren haien aldarrikapen nagusiak:

- ✓ Kazikismoaren kontra azaldu ziren.
- ✓ Galiziako atzerapena salatzen zuten.
- ✓ Garapen ekonomiko eta demokratikoa aldarrikatu zuten.
- ✓ Estatuaren deszentralizazioaren alde zeuden.
- ✓ Hizkuntza eta Galiziako kulturaren normalizazioaren alde agertu ziren.

C.-) Hirugarrenik eta azkenik, **probintzialismo moderatua** agertu zen **Valentín Lamasen** eskutik, 1875tik aurrera.

**Rexionalismoa** 1880ko hamarkadan hasi zen. Korrante horren kideen arabera, Galizia Espainiatik bereizitako entea zen (Vasconia eta Katalunia bezala), baina oraindik ez zuten naziotzat hartzen. Galiziak atzerapen historikoa jasaten zuen; era berean, zapalduta eta ahaztuta zegoela uste zuten. Hiru ikuspuntu nagusi bereiz daitezke rexionalismoan:

**A.-) Federala.** Oso korrante txikia zen. **Aureliano J. Pereira** buruak (demokrata erradikala, errepublikanoa eta antiklerikala) *El Regional* aldizkarian ematen zuten iritzia.

**B.-) Tradizionalista.** Korrantea hori **Alfredo Brañasen** gidaritzapean zegoen (*El regionalismo*, 1889). Bi zutabe ideologiko nagusi zituen: integrismoa eta historizismo-tradizionalista. Galizia, Espainiako erregiotzat hartzen zuten.

**C.-) Liberala.** **Murguia** (*El regionalismo gallego*, 1889) eta **Pondal** korrantearen buruak izan ziren. Probintzialismotik zetozen eta eboluzio politikoa izan zuten. Galiziak nazio izateko baldintza guztiak betetzen zituela defendatzen zuten – erregio hitza aipatu arren –, eta bidea zabaltzen zioten gero etorriko zen ideologia nazionalistari. Ikuspuntu historizistaren aldekoak ziren, Galiziaren jatorri zelta eta suevoa aurrekari gisa hartzen zuten. Nazioaren osagarri

nagusia arraza zen haien arabera, eta Espainia ez zen, berez, nazioa – ukamena–. Gainera, Portugalekin harreman sendoak bultzatu behar zirela uste zuten eta hiru erreferente nabarmentzen zituzten: nazio zeltikoak (Irlanda bereziki, baina baita Gales, Britainia eta Eskozia), aliatu naturalak (Katalunia eta gutxiago, Vasconia) eta Europako beste estatu gabeko nazioak.

1890ean, lehengo elkarte galegista agertu zen Santiagon, Asociación Regionalista Gallega eta *La Patria Gallega* izena jarri zioten taldearen aldizkariari. Bi sektore nagusiak (tradizionalista eta liberala) bildu ziren, baina Pereiraren ildoan kanpoan utzi zuten. Korrante horien arteko desadostasunak apurketa ekarri zuen 1892an. 1897an liberalek Liga Gallega da Coruña taldea sortu zuten eta 1907 arte *Revista Gallegaren* aldizkariaren bidez zabaldu zuten beren iritzia.

1893an Nafarroan Gamazada eta Bizkaian Sanrokada izeneko matxinadak gertatu ziren urte berean iskanbilak sortu ziren A Coruñan. Galizia osoko kapitaitza jenerala (Capitania Xeral) lekuz aldatzearen kontra matxinatu ziren.

### 1.1.3.EUSKAL HERRIA

Aranismoa zabaldu arte, Euskal Herrian foruzaletasuna izan zen mugimendu ideologiko eta politiko garrantzitsuena. Beramendiren ustez,<sup>4</sup> euskal foruzaletasunak Kataluniako eta Galiziako probintzialismoaren antza zuen, baina hainbat desberdintasun zituen:

- Euskal foruzaletasuna autogobernua oinarritzen zen.
- Eskuindarragoa edo tradizionalistagoa zen.
- Ez zen gutxien mugimendua; izan ere, gizartean ezarpen handia zuen.
- Errealitate etnokulturalaren isla zen: hizkuntza, etnia eta kultura herritarra.
- Foruak ez ziren Estatuak emandako lagapen edo eskuduntza, bi soberanien arteko akordioaren ondorioa baino.

Foru-abolizioak eraginda, foruzaletasuna erradikalizatu egin zen azkeneko karlistadaren amaieran, eta horrek honako ondorio hauek ekarri zituen:

- Fuerismo intransigentearen sorrera. Iruñean sortu zen, *1877an* Asociación Éuskara de Navarra. Campion zen burua.

---

<sup>4</sup> BERAMENDI GONZÁLEZ, Justo G.- *De provincia a nacion. Historia do galleguismo politico*, Xerais, Vigo, 2007.

- Aranismoa. Geroago aranismoa agertu zen. *Euskara* aldizkaria argitaratu zuten 1878tik 1883ra arte. Bizkaian, bestalde, Fidel Sagarminagak –sistema forala desagertu arte Bizkaiko azkeneko diputatu orokorra izan zen– 1880an Bilbon Euskalerra elkartea eta *Euskalduna* aldizkaria sortu zituen.
- Berpizkunde literarioa. Berpizkunde literarioa ere nabarmendu zen Euskal Herrian: Lore Jokoak antolatu zituen Anton Abadiak, Iparraldean, 1853an eta 1879an; Campionek eta haren kolaboratzaileek gauza bera egin zuten Elizondon.

#### 1.1.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUN ETA EZBERDINTASUNAK)

##### Harremanak

Katalunia eta Galiziako korronte ideologiko guztien artean, kontaktuak eta harremanak gertatu ziren, eta euskaldunekin ere izan zituzten harremanak.

1. **Korronte karlista.** Katalan eta euskaldunek kidesun-harremanak landu zituzten.

2. **Korronte liberala.** Liberalen eta hiru herrietako mugimenduen artean, elkartasun adierazpenak sortu ziren; adibidez, liberalismo kontserbadorearen esparruan, 1860ko hamarkadan, Joan Mañé i Flaquer Euskal Herrian barrena ibili zen. Gainera, 1876ko maiatzetik uztailean bitartean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruen bidezko erakundetzea aldatzeko legea eztabaidatu zenean<sup>5</sup>, *El Diari de Barcelonako* zuzendariak, Bartzelonan, foruen alde manifestu bat irakurri zuen estatu osoko itzal handiko 84 pertsonen sinatutakoa. Hori nabarmentzekoa da, orduan estatu mailan foruen aurkako giroa nagusi zen eta.

3. **Korronte federala.** Federalisten artean ere, kontaktuak izan ziren: F. Pi i Margall-en emazteak, Petra Arsuagak, Bergarakoa zenez, Gasteizen zeuden euskal errepublikano batzuekiko harremanak erraztu zituen, adibidez, Ricardo Becerro de Bengoarekin. Arabar horrek federalismo espainiarra euskal fuerismoan oinarritzen zuen. Galizian zehar ibili zen 1892ko udazkenean eta Pereira federalarekin kontaktuak izan zituen, baina bien artean desadostasunak azaldu ziren.

<sup>5</sup> MAÑÉ I FLAQUER, Joan.- *El oasis: viaje al país de los fueros (Provincias Vascongadas y Navarra)*. Imp. Jaime Japus Roviralta. Bartzelona, 1878-1880.

4. V. **Almirall** Euskal Herrian barrena ibili zen 1882ko abuztuan, eta Nafarroako Euscaro taldearekin elkartu zen. Talde horren *Lauburu* egunkariak Kataluniaren aldeko gorazarrea egin zuen. Euscaroren erreferentziak Katalunia, Irlanda eta Eskozia ziren.

Beste aldetik, Kataluniako Lore Jokoetan, Euskal Herriko eta Galiziako zenbait pertsonaiak parte hartu zuten: 1889an, F. Sagarminagak honako hau esan zuen: “cuando los bascongados vitorean los fueros y libertades de su patria, vitorean los fueros y las libertades de Cataluña”. 1890ean, M. Murguia izan zen gonbidatua. 1891n, Campion Bartzelonako Lore Jokoetan izan zen eta Katalunia ere goratu zuen. 1893ko Lore Jokoetan, Alfredo Brañas galiziarra izan zen bertan.

Beraz, baieztatuta dago kontaktu ugari gertatu zirela hiru nazionalismoen artean. Ondorioz, harreman sakonagoak izateko proposamenak eta elkarren arteko elkarteak sortu ziren: 1885ean, V. Almirallek Liga Vasco-Navarra-Catalana sortzea proposatu zuen, eta, 1893an, Unió Catalanistak Reusen egindako asanbladan erregioen arteko bilera bultzatzea erabaki zen. Helburua honako hau izan zen: Galizia, Nafarroa eta euskal probintziak bilduta, planteamendu erregionalista bat lortzea, amankomuneko akzio baten bidez. Azkenenean dena bertan behera geratu zen.

## 1.2. 1898TIK LEHEN MUNDU GERRARA (1914-1918). TESTUINGURU OROKORRA

1898an, jauzi kualitatiboa nabarmendu zen hiru nazionalismo periferikoen garapenean, Kuba, Filipinak eta Puerto Ricoren koloniak Espainiar Estatuak galdu ostean. Berrezarkuntza borboindarraren krisia areagotu zen. Horrek Espainiako nazio proiektua kolokan jarri eta erregenerazionismo mugimenduaren sorrera ekarri zuen. Aldi berean, Espainiaren industrializazioaren desoreka begi-bistan geratu zen eta, baita iraultza burgesaren mugak ere. Testuinguru horretan, bazirudien Estatu plurinazionala garatzeko aukera zabaldu zitekeela eta posible zela periferian agertzen ziren aukerak estatuaren modernizazioaren barruan bideratu zitezkeela; adibidez, Inperio Austro-Hungariaren ereduari jarraiki, monarkia bikoitzaren aukera zabaldu zen Katalunian.

### 1.2.1. KATALUNIA

1901ean, Prat de la Riba, Cambó, Puig i Cadafalch, etab. Unio Catalanistatik atera ziren, ez zetozelako bat erakundearen apolitizismoarekin. Ondoren, Lliga Regionalista de Catalunya alderdia sortu zuten, eta haien iritzia plazaratzeko *La Veu de Catalunya* egunkaria erabili zuten (tradizionalisten *La Veu de Montserrat* aldizkariaren izenaren antzekotasuna erabili zuten beren ideiak korronte horren eremura zabaltzeko). Urte hartan bertan, Lliga Regionalista de Catalunya alderdiak Lau lehendakarien hautagaitza bultzatu zuen (B. Robert, Societat Econòmica d'Amics del Pais; A. Rusiñol, Foment del Treball Nacional; Ll. Domenech i Montaner, Ateneu Barcelonés eta S. Torres, Lliga de Defensa Comercial i Industrial). Hauteskunde legislatiboetan, Katalunian, irabazle atera zen Lliga Regionalista, eta, ondorioz, txandakatze politikoa desagertu zen lurralde horretan.

1906an, sektore errepublikar eta federalistak Centre Nacionalista Republicà sortu zuen; katalanismoaren aniztasun ideologikoa agerian utzi zuen, eta *El Poble Catala* aldizkaria sortu zuten. 1910ean, CNR alderdiak Unió Federal Nacionalista Republicana izena hartu zuen (UFNR), baina, 1914an, porrot handia jasan zuen Alderdi Erradikalarekin (A. Lerrotxen alderdiaren burua, eta Kataluniarekiko ikuspegi espainolista zuen) *Pacte de Sant Gervasi* ituna sinatu zutenean. Jarraian desegin zen UFNR.

Bien bitartean, 1905eko azaroaren 25ean, Els fets del Cu-cut! izeneko gertakariak izan ziren. Espainiako armadako ofizial batzuek Lliga Regionalista de Catalunya alderdiaren *La Veu de Catalunya* egunkariaren eta *Cu-cut!* aldizkari satirikoaren inprimategia erre egin zuten. Ekintza horien protesten ondorioa izan zen gobernuak Jurisdikzio Legea ezartzea; horrela, bide judizial militarera egokituko zen Espainiaren batasunaren kontrako edozein eraso. Zabalduko errepresioaren aurrean Solidaritat Catalana izeneko koalizioan bildu ziren, besteak beste, Lliga, errepublikarrak, federalak, Unió Catalanista eta karlistak. 1907ko apirilko hauteskundeetan Katalunian irabazle suertatu zen koalizio hori: Kataluniari zegozkion 44 eserlekuetatik 41 lortu zituen. Independiente moduan, F. Macià militarrek, teniente koronela izateari uko egin, eta, 48 urterekin, bere ibilbide politikoari hasiera eman zion katalanismoaren barruan. Diputatua izatea lortu zuen Borges Blanqueseko hautesbarrutiaren ordezkari gisa 1907tik 1923ra bitartean.

Hurrengo urteetatik aurrera, Lligaren nagusitasun elektorala zabaldu zen –hasieran Solidaritat Catalanaren barruan eta, ondoren, talde propio gisa– zentrisimo politikoa aprobetxatuz. 1906an, alderdi horren ideologo nagusi Prat de la Ribak *La Nacionalitat Catalana* liburua argitaratu zuen, katalanismoaren funtsezko ideia liberalak sendotuz eta nazioa (Katalunia) eta estatua (Espainia edo Frantzia) argi bereiziz.

Une hartan, XX. mende hasierako lehenengo adierazpen independentistak agertu ziren. Jurisdikzio Legeak piztutako errepresioa zela eta, Santiago de Cuban, *Fora Grillons* aldizkarian, lehenengo independentziaren aldeko aldarrikapen zuzena argitaratu zen (1906ko urrian). Catalunya Grop Nacionalista Radical (1907an) Kubako Santiagoko katalanen elkarte sortu zen, eta horren estatutuen lehendabiziko artikulua zehatz-mehatz esaten zuen Kataluniako independentziaren alde lan egingo zutela.

Bitartean, ezin dira ahaztu Setmana Tràgica (Aste Tragikoa) delakoan gertatu ziren istilu bortitzak. Bertan, Espainiak Afrikan zeukan politika kolonialaren eta kinten sistemaren kontra protestatzen zen (1909). Nabarmentzekoa da, halaber, langileen mugimenduaren indarra, bereziki anarkistena (CNT sindikatua Bartzelonan sortu zen 1910ean).

1914ko apirilean, Kataluniako Mankomunitatea sortzeko legea lortu zuen Lligak Madrilgo gorteetan. Horri esker, Kataluniako lau probintzien eskumen apurrak erakunde administratibo bakarrean batzea bideratu zen. Oso botere murriztua zuen Mankomunitateak, baina 1714tik, lehengo aldiz, Katalunia batua irudikatzen zuen organo politiko-administratiboa izan zen. Prat de la Riba presidentearen gidaritzapean, 1917 urte arte, eta handik 1924ra, Puig i Cadafalchenean, Mankomunitateak Kataluniako administrazio publiko izatea ahalbidetu zuen –tokian tokiko antolamenduekin–, eta hizkuntza eta kultura katalana bultzatzeko eta garatzeko erakundeak sortu ziren, adibidez, Institut d’Estudis Catalans (Euskal Herriko Eusko Ikaskuntzaren antzeko erakunde).

### 1.2.2. GALIZIA

Mugimendu erregerazionistaren eraginez, bigarren *erregionalismo galiziarra* zabaldu zen 1898tik aurrera, bigarren belaunaldiaren aldarrikapena.

Galegismoaren hedapena emigrazioa gertatu zen herrietan nabaritu zen eta, batez ere, Kuban. Adibidez, Habanan 1905ean Sociedad Protectora de la Academe sortu zen eta, hurrengo urtean, Murguia lehenengo presidentearen eskutik, A Coruñan, Real Academia Gallega.

1907an, Kataluniakoren antzera, Solidaridade Galega talde politikoa eratu zen, hiru sektore politikok bat eginda: errepublikanismo galegoaren zati bat, erregionalistak eta neokarlistak (Vazquez de Mella izan zen haien buru). Baina ez zuten lortu Katalunian izandako arrakasta.

Hala eta guztiz, Solidaridad Galegari esker Agrarismo Galegista sortu zen eta, horren ondorioz, galegismoa nekazaritza eremura zabaldu zen: kazikeen kontrako borroka hasi zen, nekazarien esplotazioa salatu zen, foroak edo minifundismoaren arazoak mahai gainean jarri ziren, zergen banaketa bidegabea salatu zen, etab. Horren ondorioz hasi ziren egiten Monforteko nekazarien asanbladak (1908-1912), nekazaritza-erreformaren aldeko programa garatzeko, kooperatibismoarekin eta galegismoarekin bat egiteko.

### 1.2.3. EUSKAL HERRIA

Zalantzarik gabe, aranismoaren sorrera izan zen garai hartako gertakizunik inportanteena. Foruen galera, bigarren karlistadaren porrota eta industrializazioaren hedapen azkarra izan ziren aranismoa sortzeko baldintzak. Euskaldun askok aldaketa sakon eta azkar horiek beren bizimoduaren kontrako mehatxutzat hartu zituzten. Beraz, haien nazionalismoa eta independentzia edo burujabetasun aldarrikapenak haien bizimoduaren aldeko defentsa erreakziotzat jo daitezke. Hasieran, mugimenduak ikuspuntu bizkaitarra izan bazuen ere, geroxeago zazpi probintzietara hedatu zen. Honako hauek izan ziren aranismoaren ideia batzuk:

- **Integrismoa.** “Jaungoikoa eta Lagi Zarra” leloaren barruan, Jaungoikoak lehenetasuna zuen. Euskal kosmogonia propioa sortu zen, non nekazaritza-mundua erdigunea baitzen. Euskaroen Arkadia defendatzea zen helburua.
- **Esentzialismo historizista.** Bizkaia betidanik existitu da (Espainia bezala). *Bizkaia por su independencia* liburuan (1892) lau landa-borroka historiko garatu zituen Sabino Aranak, Bizkaiak Espainiaren kontra zuen gatazkan. Berak egiten zuen interpretazioaren arabera, foruak bi errealitate subiranoen arteko hitzarmena ziren, alegia, Espainia versus Euskal Herria.
- **Arraza.** Esan beharra dago garai hartan Europa osoan erabiltzen zela “arrazak” hitza berezitasun nazionala markatzeko. Edozelan ere, Aranari egozten zaion arrazakeria ez zen batere espantsionista, guztiz defentsiboa baino, galtzen ari zen mundu bat defendatzeko asmatua zen eta inolaz ere ez garbiketa etnikoaren alde egiteko. Ikuspegi beretik ulertu behar dira, beraz, hasierako “maketo”en eta sozialismoaren kontrako jarrerak Aranaren idazkietan. Garai hartako katalanismoa eta aranismoaren arteko diferentziak nabarmen geratu

ziren *Juventut* aldizkarian (1904)<sup>6</sup>: “Katalunian, katalan guztiak desagertu ondoren, berriro izango litzateke katalan herria, etorriko liratekeen hurrengoekin”. Aranak, aldiz, ez zuen hori pentsatzen. Haren ustez, Euskal Herria desagertu egingo litzateke, jatorrizko euskal herritar barik.

- **Euskara.** Sabino Aranaren euskararekiko jarrera ere modu berean ulertu behar da, hots, ikuspuntu defentsibo gisa. Industrializazio arinetik zetozen aldaketei aurre egiteko armatzat hartu zuen euskara. Hark ez zuen ondo ikusten “maketoek” euskaraz hitz egitea: “Hori gertatu baino lehen, nahiago nuke euskara desagertuko balitz” (“Mejor que desaparezca el euskera a que un solo maketo lo hable”). Katalunian zabaldutako iritzi nagusia, aldiz, guztiz kontrakoa zen: “Zenbat eta katalan-hiztun gehiago, hobeto”.

1882an Pazko-igandean, “errebelazio” euskalduna jaso zuen Sabino Aranak Luis anaia nagusiarengandik. 1884an Bartzelonara joan zen zuzenbidea ikastera. Han hasi zen euskara lantzen eta orduan hasi ziren nabarmentzen katalanismoarekin izan zituen desadostasunak.

Sabino Aranak Larrazabalgo diskurtsoarekin, lehenengoz egituratu zuen bere proiektu politikoa, eta, hori guztia, 1893an Sanrokada eta Gamazada izan ziren testuinguruan. Lehengo batzokia fundatu zuen, 1894an, Bilbon, eta kartzela ere lehenengo aldiz ezagutu zuen. Inazio Deunaren egunean, 1895ean, Eusko Alderdi Jeltzalea (Bizkai Buru Batzarra eratuz) sortu zuen. 1898 arte EAJk ez zuen jendartearen onarpen handirik lortu. Urte horretan, Ramon Sotak zuzentzen zuen Euskalerra elkarteak bat egin zuen EAJrekin, eta, horren ondorioz, Sabino Aranak antiliberalismo eta antimaketismo sutsuena alboratu zituen eta nekazaritza-munduaren aldeko jarrera leundu. 1899an, EAJk hauteskundeetan parte hartu zuen lehen aldiz. Arana Bizkaiko Foru Aldundiko hautetsia izan zen, eta EAJk 5 zinegotzi eskuratu zituen Bilbon.

Sabino Arana 1902an bigarren ez atxilotu zuten, T. Roosevelti bidalitako telegrama batengatik. Telegrama horretan, Kubak independentzia lortu izana txalotu zuen. Azken urte horretatik hil arte (1903an, Sukarrietan, Bizkaian) eztabaida piztu zen EAJ alderdian izan omen zuen iritzi-aldaketagatik, berak izandako “eboluzio espainolista” deitutakoagatik.

Handik aurrera, EAJren historiak kontraesanek eta arima bikoitzez beteriko ibilbidea izan du: alde batetik, aranista puruak; bestetik, moderatuak eta autonomistak.

---

<sup>6</sup> Nagelek jasotako erreferentzia: NAGEL, Klaus-Jurgen: Vasquismo y catalanismo hasta 1923. El catalanismo de izquierdas y Euskadi. DE LA GRANJA, J.L.; GARITAONIAINDIA, C.- (ed.).- *GERNIKA: 50 años después (1937-1987). Nacionalismo, República, Guerra Civil*. Ed. UPV/EHU. San Sebastian, 1987.

Hasieran, aranista sutsua zen Anjel Zabala “Kondaño”k hartu zuen EAJren buruzagitza, baina pixkanaka-pixkanaka praxi autonomista gailenduz joan zen. 1907an, Gregorio Ibarretxe Ugarte –Sotaren jarratzailea– izan zen Bilboko lehengo alkate nazionalista.

Aldi berean, euskal nazionalismoaren “galaxia organikoa” hasi zen eratzen:

- 1904an, Juventud Vasca-Euzko Gaztedija.
- 1907an, Mendigoizale Bazkuna.
- 1910ean, euskara bultzatzeko, Euzkera Euzkaltze Bazkuna.
- 1911n, ELA-STV sindikatua.

#### 1.2.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK)

1890ko hamarkadatik aurrera, aranismoaren agerpenarekin, diferentziak areagotu ziren hiru nazionalismoen artean: Galiziakoa eta Kataluniakoa, alde batetik; euskal abertzaletasuna, bestetik. Hainbat adibide eman daitezke:

- Gernikako Sanrokada istiluetan (1893an) Lliga de Catalunya presidentea, Ferran Alsina, ikaraturik azaldu zen “Muera España” oihuak entzun zituelako.
- Ekitaldi berean, Sabino Arana pozik agertu zen lehenengo aldiz entzun zuelako Viva Euskeria independente.
- Hurrengo urtean, 1891n, Aranek berak *Bizkaitarra* aldizkarian argitaratutako “Errores catalanistas” artikuluan Euskalerrria elkartearen joera politikoa kritikatu zuen katalanisten oso antzekoa zelako.

Beraz, garai horretan, Euskadiri dagokionez, aranismotik kanpo geratu ziren sektore apurrek soilik mantendu zituzten kontaktuak beste bi nazionalismoekin.

- 1906an, Solidaritat Catalanaren oihartzuna zela eta, Liga Foral Autonomista bilgune politikoa antolatu zen Gipuzkoan, autonomismoaren aldeko bandera harturik. Kataluniako eta Gipuzkoako buruek bilkurak izan zituzten Bartzelonan, Sitgesen, Tolosan eta Gernikan. Bilkura horien kronika Carles de Fortuny liburu elebidun batean jaso zuen (gaztelaniaz eta katalanez) “Els catalans a Basconia. Crònica d’un viatge”.<sup>7</sup>
- 1910ean, Francisco de Ulaciak Partido Nacionalista Liberal Vasco sortu zuen eta urte bat beranduago, katalanismoaren antzera, izena aldatu zion, Partido

---

<sup>7</sup> DE FORTUNY I DE MIRALLES, Carles: *Els catalans a Basconia*, Publicacions de la Lliga Regionalista, Bartzelona, 1906.

Republicano Nacionalista Vasco ipiniz, hau da, Kataluniako Union Federal Nacionalista Republicanaren antzekoa.

Dena den, aldeak antzekotasunak baino handiagoak izan ziren aranismo eta katalanismoaren artean. Joseba Agirreazkuenagak jaso zuen bezala, Pompeu Fabrak, goi-mailako linguistak, 1906an irakasle kontratua izateko aukera izan zuen Bilbon. Duran i Ventosa Lligako politikariari bidalitako gutun batean, harridura azaldu zion euskal abertzaletasunaren inguruan: “ni una paraula en bascuense, tot en castellà, cofois (harro) de l’antiguitat de l’euskera,...pero no el parlen!, ni l’entenen!”. Zentzu berean, Pere Corominasek 1914an, bien arteko diferentziei buruz hauxe idatzi zuen: “gurearekin alderatuta, oso diferentea da; ez dago zer eginik euskal nazionalismoarekin”.<sup>8</sup>

Bestalde, aipatu beharra dago tarte horretan hiru nazionalismoetan sinbolo nazionalak sortu, finkatu eta hedatzeko garaia izan zela.

- Galizian, Real Academia Galegak bultzatuta, himnoa sortu zen (musika, Pascual Veigarena, eta letra, Eduardo Pondalena), 1907ko abenduaren 20an Habanan entzun zen lehengo aldiz. Bandera nazionalan (hasieran A Coruñako itsas probintziaren bandera), Ander Deunaren Gurutzea ezarri zen baina marra bat kenduta.
- Katalunian, Bartzelonako Kondeen lau marrako bandera historikoa Katalunia osoko ikurrin ofiziala bihurtu zen eta “Els Segadors”, ereserki tradizional baten laburpenak, himno gisa gero eta oihartzun handiagoa lortu zuen.
- Euskal Herrian, Sabino Aranak diseinatu zuen ikurrina. Hasieran, Bizkaiarentzat; geroxeago, Euskadi konfederalarentzat.

1914an, Antoni Rovira i Virgili Tarragonako egileak *Història dels moviments nacionalistes* idatzi zuen. Bertan, Europako garai hartako estaturik gabeko nazionalismoei buruzko hainbat adibide (Polonia, Ukraina, Lituania, Flandria, Irlanda, etab.) aztertu zituen. Baskonia eta Katalunia kasuak ere jaso zituen; ez, aldiz, Galiziakoa. Testuinguru berean, Luis de Eleizalde, aranista moderatuak, gauza bera egin zuen EAJrena zen *Euzkadi* aldizkarian argitaratutako artikulu sortarekin. *Paises y razas. Las aspiraciones nacionalistas en diversos pueblos (1913-14)* da liburuaren izenburua.<sup>9</sup>

---

<sup>8</sup> AGIRREAZKUENAGA ZIGIRRAGA, Joseba: *Eusko-katalanismo politiko eta kulturala: sorrera eta garapena (1876-1919)*, in Sancho el Sabio. Revista de cultura e investigación vasca, 2008, 29 zk.

<sup>9</sup> Rovira I VIRGILI, Antoni: *Història dels moviments nacionalistes*. Ed. Base. Barcelona, 2008 (1914n, 1goa); ELEIZALDE, Luis de: *Paises y razas. Las aspiraciones nacionalistas en diversos pueblos (1913-14)*. EHU, 1999 (1914n, 1goa).

## 1.3 LEHEN MUNDU GERRAREN BUKAERATIK II. ERREPUBLIKARA (1918-1931). TESTUINGURU OROKORRA

Sasoi hartan, Lehen Mundu Gerrak erradikalizazio-giroa eragin zuen, bai arlo sozialean, bai nazionalitateen arloan.

- Arlo soziala. 1917ko Sobietar Iraultzak eragin handia izan zuen mundu mailan; Espainiako estatuan, gainera, Berrezarkuntzaren sistemaren krisialdiak ere izan zuen eragina. Krisialdi hori eragin zuten eragile eta gertaeretako batzuk hauexek izan ziren:
  - ✓ Militarren ezadostasunak eta protestak.
  - ✓ Kataluniako Parlamentarien Asanblada (Kataluniarentzat autonomia eskatzen zuen).
  - ✓ Langileen mugimenduan izan ziren grebak. Horien artean ezagunena Kanadarraren Greba (katalanieraz, Vaga de La Canadencia; gaztelaniaz, Huelga de la Canadiense) deitutakoa. Horri esker hainbat lorpenen artean 8 orduko lan-jarduna ezarri zen lehen aldiz.
- Nazionalitateen arloa. Hauexek izan ziren gertaera aipagarrienetako batzuk:
  - ✓ 1916ko Irlandako Pazko Altxamendua; eredugarri bihurtu zen Mendebaldeko Europako gutxiengo nazionaletan.
  - ✓ Gerra bukaerak eta horrek ekarri zituen Europako maparen birmoldaketa eta estatu berrien sorrera (Hungaria, Estonia, Letonia, Lituania, Polonia, Txekoslovakia, etab.).
  - ✓ W. Wilsonen 14 puntuak. Puntu horien artean autodeterminazioaren aldeko aipamenak egoteak ere eragina izan zuen testuinguru horretan.

### 1.3.1. KATALUNIA

1917an, Lligak kanpaina autonomista bati ekin zion “Per Catalunya i l’Espanya Gran” lelopean. Baina zabaldutako krisi sozialaren aurrean, Cambok atzera egin, eta Mauraren Madrilgo gobernuan sartu zen. Krisialdiak agerian utzi zuen Lligaren lehentasunak zein ziren.

Erradikalizatutako giro horretan, lehenengo elkarte edo alderdi independentista katalanak sortu ziren –separatista izena hartzen zuten euren burua definitzeko– eta “senyera estelada” haien logotipo bihurtu zen. Hasieran, independentismoa elkarte txiki eta erradikalizatueta azaltzen zen, barne-migraziotik etorritako gaztez osatuta, batez ere. Unió Catalanistaren barruan sarturik, talde horietan jarrera apolitikoa eta aktibista zen nagusi. Erregenerazionismoari esker gertatu zen eta Berrezarkuntzaren sistema ustelaren aurrean izandako erantzuna izan zen. Mundu-gerra osteko giroan talde erradikal txiki horiek (D. Cardona zuten aitzindari) bat egin zuten Maciàrekin (errepublika-garaian Generalitateko presidentea eta egungo Eskerra Republicana alderdiaren sortzaileetako bat izango zena) autonomismotik haratago joateko. 1919ko urtarrilean nazionalismo separatistaren lehenengo elkarte politikoa sortu zuten: Federació Democràtica Nacionalista (FDN).

FDNk ibilbide laburra izan zuen. Bartzelonako 1920ko udal-hauteskundeetan zenbait barrutitan aurkeztu ziren, baina oso emaitza txarrak atera zituzten, langileen mugimenduak protagonismo handia hartua zuelako, batik bat Kanadarraren Greban lortutako 8 orduko jardunaldiaren aldeko aldarrikapenarekin. Horren ondorioz, bi urteko etena izan zuen independentismoa alderdi batean biltzeko prozesuak.

1921. urtea gatazkatsua izan zen:

- Espainiako armada kolonialak porrot handia jasan zuen Annualen (Maroko), eta horrek krisialdi larria eragin zuen Espainian.
- Langileen mugimenduaren kontrako kanpainei ekin zitzaizkien, terrorismo zuriaren bitartez.

Testuinguru horretan, Lligak bigarren aldiz parte hartu zuen Madrilgo gobernuan. Horren ondorioz, 1922ko ekainean, Lligatik ateratako intelektual gazte batzuek (Bofill i Mates, Raimon D’Abadal) eta nazionalista errepublikar batzuek (Rovira i Virgili) Acció Catalana (AC) eratu zuten, autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzeko.

Dena den, ACK erradikalagoa zen Maciàren estrategia onartu ez zuenez, 1922ko uztailean Estat Català (EC) sortu zuen Maciàk, Cardonarekin batera, nazionalismo independentistaren erreferentzia organiko nagusia hainbat urtetan izango zena. Hasieran, alderdia baino gehiago, plataforma hiritar-militar gisa definitu zen EC), eta, Sinn Feinnen antzera, independentziaren bidea jorratzeko, matxinadaren bidea hartu zuten, eta estelada haien bereizgarri ofiziala izan zen.

ECren ezaugarri nagusia separatismoaren anbiguotasun ideologikoa zen. Separatismoaren barruan ildo hauek sartzen ziren:

- Federalistak. Espainiatik banandu eta gero Iberiar Penintsulako Federazioa sortzearen aldekoak.
- Konfederalak. Espainiatik banandu eta gero Iberiar Penintsulako Konfederazioa sortzearen aldekoak.
- Independentistak. Katalunia estatu independentea sortzearen aldekoak.

Hala eta guztiz ere, katalanismoaren garapenaren barruan, eta nazionalismoaren beste korrante ideologikoekin alderatuta, eraketa politiko independentista fenomeno berantiarizat jo daiteke, zailtasun organikoen eta ahuleziaren isla gisa. Baina ia hasieratik ezaugarri bat nagusitu zitzaion Kataluniako independentismoari: korrante progresistetatik beti hurbil izatea.

Testuinguru berean, 1923an Unió Socialista de Catalunya sortu zen, II Internazionalaren barruan. Horrek katalanismoa ildo edo korrante politiko guztietara hedatzen zela erakusten zuen (euskal nazionalismoan ez bezala).

Urte horretan ere, Primo de Riverak (Kataluniako gobernadore militarra) Italian gertatu zen antzera, diktadura militarra ezarri zuen, erregearen oniritziarekin, bi etsai nagusi gailentzeko: langileen mugimendua eta separatismoak. Hori guztia Nazio Aliantza Hirukoitza (Galizia, Katalunia eta Euskal Herria) Bartzelonan bildu eta bi egun geroago gertatu zen. Katalanismoaren aurkako jazarpena ekarri zuen diktadurak.

- Kataluniako senyera debekatu zen.
- Barça futbol taldearen zelaia 6 hilabetez itxi zuten errege-martxari txistu egiteagatik.
- Katalan hizkuntza debekatu zen.
- Mankomunitatea bertan behera utzi zen.
- ...

EC klandestinitatera pasatu, eta Macià buruzagiak erbestera joan behar izan zuen. Baina ECK hartutako estrategia irlandarra eta aktibismoa oso ondo moldatzen zen Primo de Riveraren diktadura bezalako sistemetara, hau da, partaidetzarako bideak ixten zituen sistema batera. Separatismoak eta Maciàk berak protagonismo izugarria eskuratu zuten Kataluniako oposizioan, Cardonaren ildo erradikalenekin harremanak hautsi arren. Horren adibide moduan honako gertaera hauek daude:

- Complot de Garraf: 1925eko maiatzaren bukaeran erregearen kontra egin zen atentatu-saio bat.
- Eta, batez ere, Prats de Mollóko gertaera. 1926ko azaroan, Frantziako Estatuko Kataluniatik hasiko zen inbasio-saioa izan zen. Saio horrek porrota izan zuen

eta buruzagi nagusiak kartzelaratu egin zituzten. Maciàren eta inplikaturakoaren kontra egindako epaiketak (Italiaren eta Frantziaren arteko borroka diplomatikoak tarteko) nazioarteko oihartzun eta sona handia eman zion Kataluniako gatazkari.

Primo de Riveraren diktadura 1930ean amaitu zen, eta urte bereko abuztuan Donostiako hitzarmena sinatu zuten Espainiako oposizioko taldeek errepublikaren eta autonomiaren alde. ECK parte hartu eta sinatu ere egin zuen. EAJK ez zuen parte hartu.

1931ko udal-hauteskundeetan bezperan, Maciàk Esquerra Republicana de Catalunya alderdi politikoa sortu zuen, separatismoa talde errepublikar eta federalekin (Compaynesen Partit Republicà Català alderdiarekin eta *L'Opinió* aldizkariaren taldearekin batera) batuz. Esparru handi eta berri horren buruzagi nagusia bihurtu zen Macià. Estrategia gradualista horren aurrean, D. Cardonak, 1930ko irailean, "Nosaltres Sols!" alderdia (Sinn Fein) sortu zuen, antimacianismoa eta bide intransigentea eta insurrekzional irlandarzailearen antzera.

1931ko apirilaren 14an inork espero ez zuen garaipena lortu zuen ERCK hauteskundeetan: "Mori Cambó, Visca Macià" oihukatzen zen kaleetan.

### 1.3.2. GALIZIA

Saso honetan, Galiziako nazionalismoak ere jauzi kualitatiboa izan zuen. 1916an Irmandades da Fala sortu ziren Santiagon, A Coruñan, Monforten, Pontevedran, eta Ourensean. Irmandades da Fala, erregionalismoa baztertu, eta nazionalistatzat har daitekeen lehenengo elkarte galegoa bihurtu zen. Talde horren oinarri ideologikoa Anton Villar Ponteren *Nacionalismo Gallego (apuntes para un libro, 1916)* idazkia izan zen. Honako hauek izan ziren taldearen puntu ideologiko nagusiak:

- Erregionalismo brañistaren (Alfredo Brañasek ildo erregionalista defendatzen zuen) eraginez, galegoaren eta elebakartasun sistematikoaren apologia egiten zen (ordura arte, poesia galegoz egiten zen, baina, prosa gaztelaniaz).
- Galiziako arazo sozioekonomikoen azterketa eta konponbidea bultzatzen zen.
- Eta garrantzitsuenak: erregionalistek ez bezala, Galizia nazioa zela defendatzen zuten.

Irmandades da Falak bazuen bere ekimenen berri ematen zuen prentsa bozeramailea (voceiro). *A Nosa Terra* izan zen (1907-08an sortua). Hasiera batean, Irmandadesekoek ekitaldi ugari egin zituzten kultura-arloan: dantza-taldeak eta abesbatzak, txangoak, argitalpenak, sari literarioak eta abar. Geroago, maila politikora

egin zuten jauzia: propagandarako konferentziak eta hizkuntzaren erabileraren aldeko ekitaldiak egin zituzten; prentsako egunkari garrantzitsuenetan artikuluak idatzi zituzten; mitinak, agerraldi eta jarrera publikoak antolatu zituzten; gobernuari eskaera publikoak egin zizkioten; mozioak prestatu zituzten...

Irmandadesen garapenean bi fase bereizten dira:

**Lehenengo fasea.** 1917ko irailean, Camboren Lligarekin elkarlana egin zuten Irmandadesekoek: Galiziako Astea (buruzagi nagusien konferentziak CADCIIn) antolatu zen Bartzelonan, azaroaren bukaeran. Cambó eta Lligako beste buruzagi batzuek abenduaren hasieran propagandarako bidaiak egin zituzten Galizian zehar. 1918ko otsaileko hauteskundeetan, "Irmandades"ak Camboren ildo ideologikoarekin aurkeztu ziren, baina emaitza oso txarrak izan zituzten. Gainera, Cambo monarkiarekin kolaboratzen hasi zen. Bi gertakizun horien ondorioz harremanak apurtu zituzten Lligarekin..

**Bigarren fasea.** A Coruñaako Irmandadea presentzia handia hartzen hasi zen.

- Emakumeen sekzioa sortu zuten.
- Aldarrikapen gero eta politikoagoak egiten hasi ziren (autonomia politikoa eskatzen zuten, nekazarien antolamendua bultzatu zuten, arazo sozioekonomikoen gaineko ikerketak garatu zituzten).

1918ko azaroaren 17an eta 18an, Irmandadesen Lugoko Asanblada izan zen. Onartutako programarekin nazionalismo galegoaren fase erregionalistari bukaera eman zitzaiola uler daiteke. Geroago, Errepublikaren garaian, Partido Galeguista alderdia sortu zuten, eta galegismoaren gutxiengo programa bihurtu zen. Benetako jauzi kualitatiboa izan zen.

- Galizia naziotzat hartzen zuten.
- Botere politikoa galiziarren esku uztearen aldeko proposamenak egin zituzten.
- Estatu baten antolamendu federal-konfederalaren alde agertzen ziren.
- Sufragio unibertsalaren alde agertzen ziren.
- Probintzietako diputazioak kendu nahi zituzten.
- Hizkuntzaren koofizialtasuna eskatzen zuten.

Praktikan, Irmandadesak elkarte politikoa bihurtu ziren (programa, organigrama, funtzionamendu-arauak, bozeramailea...), baina ez ziren berez alderdi (militantzia bikoitza onartu eta irmandade bakoitzak askatasuna gorde zuen). Irmandadesen II.

Asanblada 1920an izan zen, eta bertan deklaratu zen Galiziako Eguna uztailaren 25ean izango zela. Kataluniako sektore erradikalenekin harremanetan hasi ziren.

Irmandadesen korronte nagusiak hauek ziren:

- **Neotradizionalista.** Hauek ziren korrontearen zutabeak:
  - ✓ Ikuspegi katolikoa zuten.
  - ✓ Balio espiritualen defentsaren alde agertzen ziren.
  - ✓ Modernitatearen aurrean tradizioa aldarrikatzen zuten.
  - ✓ Interklasismoa aldarrikatzen zuten (“nin burgueses nin proletarios”).

Galiziako garapen ekonomiko ezaren eraginez, kontserbadoreek beste toki batzuetan (Katalunian, esate baterako) baino indar handiagoa zuten. Vicente Risco izan zen korronte horren ideologo nagusia, eta 1920an argitaratutako *Teoria do nacionalismo galego* liburuan bildu zuen bere pentsamendua. Arraza eta kulturen oinarriturik, Herder filosofo alemaniarraren eraginez, irrazionalismoa, organizismoa eta historizismoaren alde agertzen zen. Neotradizionalismo aurrefaxisten aldeko aldarrikapena egiten zuen neurri batean.

- **Liberal demokratikoa.** Liberalismoa eta demokrazia ardatz nagusiak izanda, progresismoaren eta erreformismoaren aldeko apustua egiten zuen korronte honek. Federalismoak, erregenerazionismoak eta nazionalismo irlandarrak eta katalanak eragin handia izan zuten korronte honetan.
- **Beste korronte txikiago batzuk:**
  - ✓ Arredismoa (separatismoa). Era marjinalen garatu zen. Habanan sortu zen 1921ean, katalanismoaren eraginez. Buruzagi nagusia Fuco Gómez izan zen eta 1933an Vangarda Nazionalista Galega eratu zuen. Oso talde txikia zen eta berehala desagertu zen. 1930ean, Kuban, Fuco Gómezek estreliera –Galiziako bandera independentistaren lehenengo saioa– diseinatu zuen (Horizontalen bi marra urdin eta zabal zituen, eta horien artean, erdian, marra zuri bat. Ezkerrean hiruki berde bat zuen 7 izarrekin) inolako arrakastarik gabe.
  - ✓ Sozialismo erreformista. Kataluniako USCekin bezala, USG alderdia fundatu zen 1932an.

1921ko apirilaren 16tik 18 bitartera Irmandadesen III Asanblada bildu zen Vigon. Portugalekin harremanak sendotzea erabaki zen, eta, ildo horretatik, Iberiar nazionalisten asanblada bat antolatzea proposatu zen. Portugalekin berriz integratzea

bultzatu zen, baina harremanak ez ziren inoiz joan kulturaltik haratago. 1920ko udal-hauteskundeetan (Kataluniako FDN bezala) parte hartzeko erabakia hartu zuten, V. Risco eta eskuindarren sektoreak aurkeztearen kontra zeuden arren. Lois Peña Novok, A Coruñako III barrutiko botoei esker, zinegotzia izatea lortu zuen, eta A. Villar Pontek I barrutiko botoei esker lortu zuen zinegotzi izatea, alde handiarekin, gainera.

Dena den, IV Asanbladan, (Monforten, 1922ko otsailaren 20tik 18ra bitartean) polemika bizia sortu zen bi korrante nagusien artean (politika versus kultura), eta zatiketa etorri zen. Eztabaida apolitikoa kontserbadoreek irabazi zuten eta taldearen izena aldatzea erabaki zuten: ING (Irmandade Nazionalista Galega). Taldeko burua V. Risco atera zen. A Coruñako progresistek, eztabaidan garaile suertatu ez arren, "irmandade" izenari eutsi zioten. V Asanbladan (A Coruñan, 1923ko martxoaren 18tik 19ra bitartean) apolitikoen nagusitasunari eutsi zitzaion. Azken asanblada horretan izan zen sindikatu nazional bat (Confederación do Traballo Galego) sortzeko ahalegina, baina, azkenik, ekimenak ez zuen aurrera egin.

Baina, garai hartan, eta ekimen politikoetatik haratago, Segundo Rexurdimento Literario mugimenduak aupada handia izan zuen. 1920ko hamarkadatik aurrera Galiziako produkzio artistiko eta kulturalak izaera galegista argia izan zuen, eta hizkuntzak berebiziko protagonismoa hartu zuen.

- Galego hutsezko idazkiak izaten ziren.
- Mitinak eta ekitaldi publikoak galego hutsez egiten ziren.
- Mugimendu artistikoen sorkuntza, orokorrean, eta, bereziki literatura galegoz egiten zen (nobelak, antzerkia, poesia eta entseguak).

Primo de Riveraren diktaduran, sektore eskuindarrenek, (ING-ren ingurukoak) hasieran, korporazio eta diputazioetan parte hartu zuten (Kataluniako Mankomunitatearekin gertatu zen bezala), diputazio bakarra edo mankomunitatea lortze aldera, baina ez zuten beren nahia lortu. Organikoki, irmandadeak desegin ziren eta galegismoa kulturaren babesean ezkutatu zen. Seminario de Estudios Galegos 1923ko urrian sortu zen.

Estatuan eta Katalunian bezala, Diktaduraren krisiaren ondorioz, 1930tik aurrera, Irmandadeak berriro eratu ziren. VI Asanbladan (A Coruñan, 1930ko apirilaren 26tik 27ra bitartean), berriro lortu zen batasuna, baina sektore apolitiko kontserbadoreek ez zuten onartzen perspektiba elektorala. Honela zegoen diktaduraren krisiaren ondorioz Irmandadeetako egoera:

- A Coruñako Irmandadeko talde progresistak bat egin zuen errepublikar autonomistekin eta 1929ko irailean Organización Republicana Gallega

Autonoma (ORGA) sortu, eta, apur bat beranduago, Federación Republicana Gallega (FRG) plataforman sartu zen.

- Santiagoko irmandadeek Asociación Nacionalista de Santiago eratu zuten, eta horietako batzuek Esquerda Galegista sortu zuten.
- Ourenseko irmandadeek Partido Nazionalista Republikan de Ourense sortu zuten.
- Vigon Grupo Autonomista Galego de Vigo eratu zuten.
- Beste zenbait herritan, Labor Galegista , Grupo Nazionalista Galego eta Partido Galegista de Pontevedra eratu zuten.

### 1.3.2. EUSKAL HERRIA

Lehen Mundu Gerraren bukaeraren ondorioz, Euskal Herrian ere nabarmendu zen erradikalizazioa: EAJ barruan, liskarrak azaldu ziren ortodoxoen eta moderatuen artean, eta, horren ondorioz, Luis Arana Goiri, Sabinoren anaia nagusia, kanporatu egin zuten alderditik. 1916ko abendutik aurrera, sektore moderatuak EAJri izena aldatu zion eta Comunion Nacionalista Vasca jarri zion, eta, Camboren posibilismoari jarraituz, (Cambó 1917an bi aldiz izan zen Euskal Herrian) hazkunde handia lortu zuen.

EAJko gazteei dagokienez, haien iritzia zabaltzeko *Aberri* agerkaria atera zuten. Eli Gallastegi (“Gudari”) bihurtu zen haien buruzagi nagusia. Irlandarren borroka goraiatzeko zuten, eta 1921an, Maciàk egin zuen bezala, Marokoko gerraren kontrako kanpainari ekin zioten. Izaera antikapitalista zuten. Horregatik kanporatu zituzten alderditik Euskal Gazteriaren partaideak, eta hori guztia, doktrina sabindarraren aldeko kanpainaren erdian. Kanporatuek PNV-EAJ birsortu egin zuten, sabindar edo aranista petoen laguntzarekin (Kondañoren eta Luis de Aranaren laguntzarekin, adibidez). 1922an, EAJko gazteek Ambrois Martin abertzale irlandar sutsua konbidatu zuten hitzaldi bat ematera. Mintzaldi horretan, Ambrois Martinek politikan emakumeen presentzia aldarrikatzen zuen, eta horrela sortu zen Emakume Abertzale Batza (EAB).

Primo de Riveraren diktadurapean, Comunion Nacionalista legala izaten jarraitzen zuen, baina inolako eraginik izan gabe. Eli Gallastegi (“Gudari”), ostera, erbestera joan behar izan zuen 1925ean, bere ezkontza-agurrean izan ziren iskanbilak zirela eta.

Primo de Rivera erori eta gero, 1930ean, Bergarako hitzarmena sinatu zuten EAJk eta Comunionek eta, berriro ere, bi sektoreek bat egin zuten. 1930ean ere, fusio horren atarian, azaroaren 30ean, Ander Deunaren egunean, Eusko Abertzale Ekintza-Acción

Nacionalista Vasca akonfesionala eta errepublikazalea sortu zen, aranismoa birplanteatzeko eta EAJren euskal nazionalismoaren monopolio historikoa apurtzeko.

### 1.3.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK)

Garai hartan, Galiziako nazionalismoan nabarmenena da Euskal Herriari buruzko aipamen falta, batez ere Kataluniako erreferentzia ugarirekin alderatzen bada. Euskal Herriko nazionalismoa beste biren aliatua zen, baina eremu ideologikoan inolako analogiarik izan gabe. Galiziako nazionalismoarentzat, ostera, Katalunia zen erreferente nagusia, baita sektore erradikalenean ere.

Aldi hartan, kontaktuek lehenengo aldiz hartu zuten izaera organikoa, baina ez ziren haratago joan; 1923ko udan harremanak izateko lehenengo ahalegin serioak egin ziren, Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko nazionalisten artean harreman organikoak ezartzeko. Ondorioz, ACK proposatuta, Nazio Aliantza Hirukoitza sortu zen. *La Publicita* ACren agerkariak eman zuen horren berri. Hasieran aliantza horretan alderdi eta elkarte hauek hartu zuten parte:

- Kataluniatik aldetik, AC, EC eta UC.
- Galizia aldetik, Irmandades de Fala eta Irmandade Nazionalista Galega.
- Euskal Herritik, CNV eta EAJ-PNV.

Laugarren nazio bat ere proposatu zen aliantza horren kidea izateko (Rifeko nazionalistak), baina azkenean ez zuen aurrera egin proposamen horrek.

1923ko irailaren 11n, partaideak Bartzelona bildu ziren, Diadaren ospakizunean. Hainbat ekitaldi antolatu ziren, besteak beste, Tibidaboko Metropolitan Hotelean izandako otordua, Rafael Casaonovaren estatuaren aurrean egindako lore eskaintza (poliziak errepresio bortitzarekin erantzun zuen) eta, gauean, Victoria Antzokian, izandako mitina.

Estevezek argitu zuen bezala,<sup>10</sup> arazoak kolaborazioa zehaztu orduko sortu ziren; aliantzari izaera erradikala eman nahi izan zitzaionean, aliantzatik kanpo geratu ziren indar pragmatikoenak zein indartsuenak (Comunion eta Lliga). Primo de Riveraren Diktadurak bertan behera utzi zuen aliantza akordio saiakera hura.

---

<sup>10</sup> ESTÉVEZ, Xosé.- *De la Triple Alianza al Pacto de San Sebastian (1923-1930)*. Mundaiz. Donostia, 1991.

Primo de Riveraren diktaduran, sektore erradikalenek protagonismoa hartu zuten. Erbestean kontaktu eta kolaborazio ugari izan ziren Francisco de Gaztañagaren (Gallastegiren bitartekaria) eta D. Cardonaren artean. Irlandarrei zioten miresmena zen bi partaideen ezaugarri nagusia.

## 1.4 BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GUDA ZIBILA (1931-1939). TESTUINGURU OROKORRA

Sistema politiko berriak, errepublikanoak, lehenengo aldiz, askatasun formalak eta joko politikoa eskaintzen zituen. Baina tentu handiz jokatu behar izan zuen, egoera oso gatazkatsua izan baitzen: erradikalizazio sozial handia zegoen, krisialdi ekonomikoa handia zegoen eta Europa osoan zehar sistema autoritarioak eta faxistak asko zabaldu ziren.

### 1.4.1. KATALUNIA

1931ko apirilaren 14an, Generalitateko bakoitiko, F. Maciàk, errepublika katalana aldarrikatu zuen Iberiar Federazioaren barruan. Hiru egun geroago, ostera, Espainiako Behin-behineko Gobernuak hiru ministro berri Madriletik Kataluniara joan ziren Maciàrekin elkartzera, eta Generalitat de Kataluniako gobernua osatzea hitzartu zuten, hitzarmen baten bidez.

1931ko abuztuaren 2an, Nuriaren idatzitako estatutua, erreferendum baten bidez, onartu egin zen gehiengo handiarekin, baina Espainiako Gorteek, prozesu luze baten ondoren, mugatu egin zuen estatutua. 1932ko abuztuan Sanjurjo jeneralak gaizki ateratako estatu-kolpe saiakera bat egin zuen, eta horrek estatutua aurrera ateratzeko prozesua arindu egin zuen, eta 1932ko irailean onartu egin zen. Handik aurrera, eskumenak martxan jartzeko bidea oso geldoa izan zen.

Besteak beste, hauek ziren Estatutuaren lorpen nagusiak:

- Hizkuntzaren koofizialtasuna.
- Zuzenbide zibila Generalitatearen esku uztea.
- Udalen administrazioa eta barne administrazioa Generalitatearen esku uztea. Horren bidez, lurralde banaketa berria aurreikusten zen; beraz, Kataluniako lurraldea probintziak banatzea baztertu egiten zen.
- Ordena publikoa.

Finantza-arloa (zenbait zerga, salbu) eta hezkuntza, ordea, ez ziren Estatutuaren esku geratu. Eskolak sortzeko, Generalitatearen diru propioarekin egin behar izan zen.

1932ko azaroaren 20an, Kataluniako Parlamenturako hauteskondeak antolatu ziren. ERC indar nagusia izan zen, baina Lliga ere goraka hasi zen.

Eguneroko joko politikoan sartzeak, ostera, separatismoa zatitzea eragin zuen, eta argi utzi zuen haren ahulezia. Lau taldetan geratu zen banatuta:

- **Nosaltres Sols!**. D. Cardona zen burua. Apolitizismo sutsuena eta purismo gorena ordezkatzeko zuten. Nuriako Estatutuari baietza eman ez zuten talde bakarra.
- **Partit Nacionalista Català**. Separatismoaren barruan joko politikoa onartu eta erabili nahi zuten lehen indar politikoa izan zen. 1932ko martxoan sortu zen, Maciàk 1931ko apirilaren 17an eginiko traizioaren kontra. 1932ko azaroko hauteskundeetan aurkeztu zen. Maspons i Anglès izan zen zerrendaburua, eta Estatutuaren prozesua kritikatu zuen nabarmen. Porrot handia izan zuten; 6.000 boto inguru baino ez zuten atera.
- **Partit Català Proletari**. Oso talde txikia izan zen, eta hauteskunde horietan oraindik boto gutxiago atera zituen (600 inguru). Buruzagi nagusiak, Jaume Comte, independentismoa langileen mugimendutik gertu kokatu nahi zuten.
- **JEREC (Joventuts d'Esquerra Republicana-Estat Català)**: Lau taldeen artean, arrakastatsuenak izan zen. ERC barruan gazteak biltzen zituen talde independentista zen. EC izenari eutsi zioten. Josep Dencàs eta Miquel Badiaren ziren aitzindariak. 1933tik aurrera, hautsak harrotu zituzten, agerraldia publikoetan alkandora berdearekin agertu eta desfile sasimilitarrak egiten zituztelako. CNTren grebaren kontrako ekintzak burutu zituzten eta 1934ko hasieran, Barne Sailaren kontrolatik bortizkeria legez kanpo erabiltzea leporatu zieten.

Oro har, Kataluniako independentismoa nazismo eta faxismotik urrun kokatu zen, paper hori etsai nagusiak betetzen zuelako, hots, Espainiako muturreko nazionalismoak.

1933ko azaroko hauteskundeetan, eskuin errepublikarrak garaile atera ziren eta, hortik aurrera, egoera aldatu egin zen. CNTek bultzatutako Errepublikaren kontrako estrategian, krisialdi ekonomikoaren erdian, langileen grebak ugaritu egin ziren. Estatu osoan, eskuindarrek irabazi zuten, baina Katalunian, aldea oso txikia izan zen (Lligak, 28 eserleku; ERCK, 26).

Urte bereko Gabon egunean, Macià hil egin zen eta Lluís Companys aukeratu zuten ordezkatzeko. Eskuindarren eta ezkertiarren artean areagotu egin ziren liskarrak, batez ere Llei de Contractes de Conreu legea onartu zuenean Kataluniako Parlamentuak (Legea rabassaireen (errentariak edo maizterrak) aldekoa zen, eta jabeen kontrakoa (azken horiek Lligak babesten zituen). Auzitegi Gorenak atzera bota zuen. Baina, 1934ko urriaren 6an, CEDAk (Confederación Española de Derechas Autónomas. Euskaraz, Eskuin Autonomoen Espainiar Konfederakuntza espainiar alderdi katolikoa) alderdiko zenbait ministro izendatu zituen, eta, horren ondorioz, Companysek Estat Catalaren aldarrikapena egitea erabaki zuen, Errepublikaren barruan.

Companys eta kontseilariak kartzelaratu zituzten, eta, beraz, autonomia ezerezean geratu zen. Auzitegi Gorenak kartzela-zigorak ezarri zizkien (Companysi 30 urtekoa), eta Puerto de Santa Mariako espetxean sartu zituzten.

1936ko otsailaren 16ko estatu-mailako hauteskundeak Fronte Popularrak irabazi zituen (Katalunian, "Front d'Esquerres"). Amnistia ezarri zen eta Kataluniako Estatutua indarrean jarri zuten berriro ere. Guda Zibilaren atarian, EC talde independentistak independentismo osoa batu egin zuen beste behin, baina gerra-garaian oso protagonismo txikia izan zuen.

Katalunian huts egin zuen Francoren estatu-kolpea eta gerraren lehenengo urtean batez ere, kolektibizazioak eta saio iraultzaileak ugaritu egin ziren, talde anarkisten nagusitasunarekin. 1937ko maiatzean, gatazkak izan ziren talde ezkertiarren artean. Alde batetik, anarkistak eta POUM zeuden, eta, bestetik, PSUC (III Internazionalaren Kataluniako sekzioa). Borroka horretan, azkenak atera ziren garaile.

1937ko azaroan, hiru gobernu zeuden Bartzelonan: Espainiako Goberna, Eusko Jaurlaritza (erbestean) eta Generalitat. Gobernu zentrala eskuduntzak kentzen hasi zen, eta horrek desadostasun handiak sortu zituen. Desadostasunok gerra galdu zuten arte iraun zuten.

## 1.4.2. GALIZIA

1931ko apirilaren 14an, Galizian, hiri handienetan Errepublika aldarrikatu zen. 1931ko ekainaren 28ko hauteskundeetan ORGA (Organización Republicana Gallega Autónoma) alderdiak 17 diputatu lortu zituen. Horietatik hiru nazionalista ziren. Hasieran, hiru diputatu nazionalistak Gorteetako Gutxiengo Galiziarrean (19 diputatu) sartu ziren, baina Casares Quirogaren jarrera ikusita (aldarrikapen

autonomikoen aurrean, errepublikanismoari lehentasuna eman zion Azañarekin bat egiteko) Otero Predayok, Castelaok eta Suarez Picallok taldea utzi egin zuten.

Gauzak horrela, Galiziaren historian, 1931ko abenduaren 5ean eta 6an lehenengo alderdi galegista sortu zen: PG. Haren egiturak, hasieratik, galegismoaren ildo guztiak batzen zituen erakunde bakar batean. Programaren ardatz nagusiak hauexek izan ziren:

- Galiziarako autodeterminazio politikoa.
- Errepresentazio proportzionala, hautesbarruti handiekin.
- Antinperialismoa.
- Galegoraen koofizialtasuna.
- Nekazaritza erreforma.

Laburbilduz, PGk izaera demokratiko erreformista hartu zuen, eta, lehenengo aldiz, hiri proletarioen babesa jaso zuen. PG alderdi politiko modernoa izan zen (aro berriari moldatua) eta hiru helburu nagusi izan zituen: regalegizazioa, modernizazioa eta demokratizazioa.

1931. eta 1936. urte bitartean, hazkunde oso handia izan zuen PGk:

- 700 afiliatu izatetik, 5.000 izatera igaro zen.
- 30 herritan egotetik, 140 herritan egotera igaro zen.
- Intelektualek eta erdi-mailako langileek nagusitasun osoa zuten alderdia izatetik, nekazari eta hiri-langileak presentzia nabarmena izatera igaro ziren, %30ekoa.

Sindakalismoaren aldetik, ordea, PG alderdia ez zen gai izan sindikatu galego nazional bat sortzeko, batez ere, bi arrazoi nagusirengatik: Galiziako lurralde banaketa irregularrarengatik; eta bestetik, sektore batzuk ez zeudelako behar bezala garatuta.

Nazionalistek hasieratik, lortu zuten gazteak antolatzea, eta 1934ko urtarrilean, Federación de Mocedades Galeguistas erakunde politikoa eratu zuten, geroago, frankismopeko buruzagi galegisten harrobia bihurtu zena. Francisco Fernández del Riego izan zen presidentea eta Xaime Illa Couto antolakuntzarako idazkaria. Kultura-, politika-, unibertsitate-, erakunde- eta nekazaritza-arloko beste pertsonaia batzuk ere batu zitzaizkien:

- Celso E. Ferreiro poeta.
- Ramon Piñeiro pentsalari eta politikaria.
- Xosé Velo Mosquera politikari independentista.

- Grupos excursionistas Ultreya talde mendizalea. Alvaro das Casasek sortu zuen 1932ko otsailaren 10ean Noian. Catalunyaoko Palestrarekin antzekotasun handia zuen.

Errepublika sortu eta ia berehala, autonomiaren aldeko borroka politikoa zabaldu zen Galizian. Hasieran, 3 estatutu proiektu idatzi ziren: Secretariado de Galicia en Madrid proiektua, Instituto de Estudios Gallegos da Coruña proiektua eta Seminario de Estudios Gallegos de Santiago proiektua. Ez zuten aurrera egin, nazionalisten postulatuetatik hurbilegi zeudelako. Euskal Herrian gertatu zen bezala, eztabaida luze eta antzua zabaldu zen ondoren. 1932an Santiagoko Asanblada izan zen, eta bertan adostasun minimoa lortu zen ORGak proposatzen zuen testuaren inguruan, eta, nahiz eta eskumen gutxiago izan, udal gehienek onartu egin zuten.

1933ko azaroko hauteskundeetan, alderdi galegoa errepublikar gisa aurkeztu zen, eta porrot egin zuen. Galegismoa ordezkariarik gabe geratu zen Madrilen, eta estatutuaren prozesua eten egin zen.

1934ko urriko mugimenduan, PGk ez zuen parte hartu, baina ondorio latzak izan zituen, *A Nosa Terra* publikazioa itxi egin zutelako. Euskal Herrian bezala, Castelao eta Boveda buruzagientzat argi geratu zen estatutua lortzeko estrategia bideragarri bakarra zela ezkerreko errepublikazaleekin akordioak lortzea. Hori zela eta, 1936ko otsaileko hauteskundeetan, Fronte Popular barruan sartu zen, eta hiru diputatu lortu zituen galegismoak: Castelao, Suarez Picallo eta Villar Ponte. PGtik kanpo geratu ziren eskuindarrek (Fronte Popularrarekin bat egiten ez zutelako), V. Riscok eta Filgueirak Dereita Galegista sortu zuten, baina ez zuten ordezkariarik lortu.

Estatutuaren erreferenduma egitea bideratu zen 1936ko ekainaren 28an (Zentsua:1.343.135. Boto emaleak: 1.000.963. Baizekoak: 993.351), eta Gorteetan formalki eztabaidatzeko prozesua zabaldu zen, 1936ko uztailaren 18an emandako kolpearen inguruko egunetan. Buruzagi galegista batzuk Madrilerara abiatu ziren Galiziako estatutua aurkeztera. Hori zela eta, 1936ko estatu-kolpea izan zenean Madrilen izan ziren politikari nazionalistak –estatutua aurkezten– bizirik atera ziren, Castelao eta Suarez Picallo esate baterako; ez, ostera, Alexandre Boveda (1936ko abuztuaren 17an sublebatuek fusilatu egin zuten).

Gerra hasieratik, matxinatuek Galizia osoa kontrolpean izan zuten. PGk konfrontazio zuzena eta armatua baztertu zuen, makiek ez bezala. Errepresioak eragin ezberdina eta mailakatu izan zuen galegistekin: zelako jarrera ideologikoa, halako zigorra. Ezkertiarren artean, batzuk epaiketarik gabe izan ziren fusilatuak (Boveda, esate baterako), beste batzuek isuna jaso zuten (Otero Pedrayo), eta, beste batzuk –erregimen berriari atxikimendua azaldu eta gero– erabat baztertuta geratu ziren, eta

ostrazismoa eta isiltasuna inposatu zitzaizkien (Riscoren eta Filgueiraren kasuak, esate baterako, azkenekoa, gerora, Pontevedrako alkatea izan zen arren).

1937an, Generalitateak – Comisariat de Culturaren bidez– egoitza propioa utzi zion galegismoaren ordezkapenari, Bartzelonan. Horri esker, nazionalista galiziarrek *Nova Galiza* publikazioa ateratzeko aukera izan zuten 1937ko apiriletik 1938ko uztailean bitartean. Garai horretan helburu nagusia harremanei eustea zen, bai gerrako frontearekin, bai Galizian geratu zirenekin eta baita kanpoko emigrazioarekin ere, Amerikakoarekin batez ere. Dena dela, 1937ko urrian Valentzian egindako bileran, Espainiako Gorteek ez zuten sartu gai ordenan Galiziako estatutua onartzeko proposamena, eta atzeratu egin zen hurrengo bilera arte, (Montserraten, 1938ko otsailean). Bien bitartean, Castelao, bere lan artistikoa aurkezteko aitzakiarekin, 1938. eta 1939. urteetan, hainbat bidaia egin zituen munduan zehar (Sobietar Batasuna, AEB, Kuba). Horietan, Galiziako nazionalismoaren alde jardun zuen. Azkenik, 1945ean, onartu egin zen Galiziako Estatutua Gorteek erbestean egindako bilera batean, eta Castelao aukeratu zuten Galizioako presidente.

### 1.4.3. EUSKAL HERRIA

1931n EAJ berriak Eusko Ikaskuntzak eginiko Lizarrako Estatutua (bertan proposatu eta onartu zuten Euskal Herriko alkateek) bultzatu zuen, karlisten aliantzarekin, Nafarroaren integrazioa errazago ahalbidetzeko. Baina jarrera horrek sozialista eta errepublikanoen haserrea eragin zuen. Sozialistek “Espainiako Vatikanoa” sortu nahi zutelaren esaten zuten, eta Eusko Gazteriaren lokalen kontrako erasoka hasi ziren.

1932an *Jagi-Jagi* aldizkaria EAJtik kanpo geratu zen, eta izendapen berria hartu zuen: *Mendigoizaleen Federazioa*. Aranista petoak eta, aldi berean, antikapitalistak ziren. Irlandako iraultza zuten eredu eta Eli Gallastegi zen burua.

1933tik aurrera, EAJk estrategia aldatu zuen. Karlistekin adostutako aliantza hautsi egin zuen eta PSOErekin bat egin, estatutua aurrera atera ahal izateko. Gestoretako Estatutua idatzi zen, baina Nafarroa kanpoan geratu zen, bertako karlismoaren oposizioarengatik. Galizian bezala, estatua aurrera ateratzeko ekimena bertan behera geratu zen Biurteko Beltza izenekoa hasi zelako (Espainiako alderdi eskuindarrek gobernura heltzea lortu zuten, 1933tik 1936 bitartera eta Lerrotx izan zen burua). Bitartean, Gallastegik abertzaletasunaren hiru adarrak (EAJ, EAE eta JAGI-JAGI) batzeko proposamena egin zuen, Madrilen aurrean planteamendu bateratua eramateko, baina EAJk uko egin zion proposamenari. Gallastegik autonomismoaren aurkako estrategia defendatu zuen. Hitz hauek esan zituen: “*Que no se hable ni una palabra de Estatuto.*”

*Nos negamos a hablar con el opresor* (“Ez dezagun estatutu hitza aipatu. Ez dugu zapaltzaileekin hitz egingo”).

1936ko uztailaren 18tik aurrera, gerra piztu zenean, EAJk bat egin zuen Errepublikarekin, hasierako zalantzak uxatu eta gero. Agirre eta Prietoren arteko hitzarmena zela eta, 1936ko urriaren 1ean 1936ko Euskadiren Autonomia Estatutua (Euskadiren Berjabetasun-Araudia) onartu egin zen, eta 1936ko urriaren 7an, Agirre Lehendakari izendatua izan zen. Aginte-eremua oso mugatua izan zuen, ia Bizkaian soilik.

1937ko martxoan hasitako ofentsibaren ondorioz, ekainaren 19an Bilbon sartu, eta Euskadi osoa kontrolatu zuen frankisten armadak. Gallastegi Irlandara abiatu, eta han bizi izan zen 1958ra arte. Eusko Jaurlaritza, Bartzelonara abiatu, eta egoitza propioa izan zuen Elcano Jauregian. Generalitatearen aldetik trataera ofiziala jaso zuen.

#### **1.4.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK)**

II. Errepublikaren garaian, gerra hasierako lehenengo 9 hilabeteetan, Eusko Jaurlaritzak herri independente gisa funtzionatu zuen. Baina Kataluniako nazionalismoa izan zen Espainiako Estatuan zegoen autonomismoaren erreferentea argia.

Oro har, hiru nazionalismoen artean harreman eta adostasun politikoa txikia izan zen. Konstituzioa egiteko prozesuan –eraketa instituzionalaren artikuluei dagokienez, esate baterako–, bat etorri ziren bozkatzeko momentuan, baina aldeak ere agerian utziz, arlo sozialetan batez ere; adibidez, EAJk eta Otero Pedrayok (galegista eskuindarra) alde batetik jo zuten, eta beste aldetik ERCK, Castelaok eta Suarez Picallok.

Aldeak alde, hamarkada errepublikar honetan, autonomia prozesua aurrera eramateko, nazionalismoen arteko harremanak areagotu egin ziren:

- EAJk batzoki bat ireki zuen Bartzelonan.
- 1932ko udan, diputatu galegistak Bartzelonara joan ziren, Generalitateak gonbidatuta.
- 1933ko apirilean, EAEk (Euzko Abertzale Ekintza) mitin bat antolatu zuen Bilboko Euskalduna Frontoian, PG eta ERCrekin batera.

Zalantzarik gabe, ondorio nagusia izan zen Galeuzcaren bigarren saioa (1933ko uztailaren 25ean, Compostelan, eta 30ean, Bilbon). Eraginkortasun falta nabaria izan zen, diferentzia ideologiko handiak zeudelako indar politiko nazionalisten artean (EAJren eta EAEn artekoak; Ultreyaren eta PGren artekoak eta Lligaren eta ERCren artekoak). Gainera, Estatututik kanpo geratu ziren independentista katalanek (PNC eta NS!) ERCren kontra jardun zuten. Dena dela, errepublikaren aro hau, baliogarria izan zen nazionalisten elkarren arteko ezagutza sendotzeko eta nazioarteko harremanak sendotzeko (adib. Partido Galegista Galeuscaren bidez sartu zen Europar Nazionalitateen Kongresuan).

Independentisten arteko harremanak ere sendotu ziren, batez ere D. Cardonaren (NS!) eta E. Gallastegiren artekoak ("irlandarrak"). 1934ko abuztuan, Cardona (Sant Just Desverneko alkatea) Bilborako bidaia egin zuen (bidaiaren kronika bi idazkitan jaso zuen) eta 1936ko apirilean, Gallastegi, Sant Justera.

Gerra bukatzeaz zegoela, 1939ko otsailaren 7an, Agirre lehendakaria Parisetik Bartzelonara joan zen beren-beregi muga Companysekin batera zeharkatzera. Bidaia hori Azañarekin eta Negrinekin ere (Errepublikako eta Espainiako gobernuko presidentek, hurrenez hurren), egitekoak ziren (Castelao ere han izango zen, ofizialki presidente izan balitz, seguruenik). Baina Azaña eta Negrin ez ziren hitzorduan agertu, haien aldetik ihes eginak zeudelako lehenagoz.

Hiru nazionalismoen gerra arteko garai hura laburbiltzeko Ucelayren<sup>11</sup> tesia ontzat har daiteke (gerra arteko Katalanismoa eta euskal nazionalismoa aztertu zituenekoa): ez zen benetako konfluentzia gertatu, topaketa-sekuentziak baino, egoeraren araberakoak, gainera.

## 2. HIRU MUGIMENDU NAZIONALISTEN GARAPENA FRANKISMOPEAN

---

<sup>11</sup> UCELAY DA CAL, Enric: *Política de fuera, política casera: una valoración de la relación entre nacionalistas catalanes y vascos (1923-1936)*

DE LA GRANJA, J.L.; GARITAOINIAINDIA, C: *GERNIKA: 50 años después (1937-1987). Nacionalismo, República, Guerra Civil*. EHU. Donostia, 1987.

## 2.1. KATALUNIA

Erbestean, Kataluniako indar politikoen arteko ezadostasunek Generalitateko gobernua desegin zuen. Beraz, gobernuaren ordeztan, Lluís Companys presidentek Consell Nacional de Catalunya erakundea eratu zuen 1940ko apirilean. Lau hilabete geroago, agintari alemaniarrek Companys –Frantzia okupatua zegoela– atxilotu eta Espainiako polizia frankistaren esku utzi zuten. 1940eko urriaren 15ean fusilatua izan zen. Carles Pi Sunyerrek hartu zuen erakundearen lehendakaritza, Londresen bizi zelako, eta 1931ko Konstituzioaren eta Kataluniako Estatutuaren akabera aldarrikatu zuen.

Diktadurak demokrazia parte-hartzailearen bideak itxi ondoren, Katalunian D. Cardonaren eta, oro har, separatismoaren estrategia historikoa protagonismoa berreskuratu zuen (katalanen batasun “sakratua” eta borroka armatua, Sinn Feinekin egin bezala). Cardona eta ERCko Joan Cornudellaren jarraitzaileek Parisen akordio bat sinatu zuten, Front Nacional de Catalunya sortzeko. Herrialde okupatuetan alemaniarren kontrako oposizioaren estrategia berbera erabiliz, FNCK zuzendaritza Kataluniako barnealderantz eraman zuen, eta aliatuen alde hasi zen lana egiten: espioitza, muga zeharkatzeak, eta abar. CNCren jarrera autodeterministarekin bat egin zuten.

Bigarren Mundu Gerra aliatuek garaitu izanak garaipenak Frankoren erregimenaren bukaera ekarriko zuela uste zen; beraz, hori guztia gertatuko zela argi zegoenean, FNCK jarduteko era aldatu zuen, eta propaganda ekintzak burutu zituen, gerra bukaeran Kataluniaren nazio-izaera aintzat hartzeko. Kataluniako beste indar politiko antifrankistek ere berrantolatzeak aukera izan zuten (ERC, adibidez). 1945ean Josep Irla presidente berriak Lluís Companysen eratuak CNC (Consell Nacional de Catalunya) disolbatu zuen, eta Generalitateko gobernua berrosatu zuen.

Aliatuen garaipenak, ordea, ez zuen ekarri Francoren erregimenaren erorketa. FNCK protagonismoa galdu zuen, eta fronte izateko estrategia-arrazoia desagertuta, 1947an alderdi politikoa bihurtu zen, eta Joan Cornudella alderdiko buru nagusia izendatu zuten. 1948tik aurrera, “basamortu frankista”ren garaia hasi zen: oposizioa nolabait hibernatuta geratu zen; frankismoa, aldiz, egonkortu.

Baina 1950eko hamarkadaren erditik aurrera, berpiztu egin ziren oposizioaren indarrak. “Desarrollismoaren” garaia zabaldu zen eta belaunaldi-errolea etorri zen – Guda Zibila ezagutu zuten indar politikoak desagertu eta mugimendu berriak agertu

ziren—. Horrekin batera, erbestean nazionalismo kataluniarrak indarra galduz joan zen; barnekoa, aldiz, gero eta indartsuagoa zen. Katalunian, gizarte eraldaketa sakona hasi zen, bai ekonomikoki, bai gizartean ere, eta nabarmenena immigrazio-fenomenoaren hazkunde izugarria izan zen.

Politikoki, erbestean 1954an Irlak dimititu egin zuen, eta Josep Tarradellasek hartu zuen Generalitateko presidente kargua, baina protagonismoa pixkanaka-pixkanaka barrura abiatu zen. Unibertsitatean, urte gutxitan ikasleen kopurua bikoiztu zen eta horrek, 1960ko hamarkadatik aurrera, marxismo eta ideia progresisten sorburu eta hedapena ekarri zuen. Unibertsitateko ikasleen zein irakasleen lehengo borroka azaldu ziren 1957an. Lehenengo asanblada libre antolatu zen SEU Sindicato Español Universitario sindikatu falangista ofizialetik kanpo, eta 1966an, SDEUB (Sindicat Democràtic de la Unibersitat de Barcelona) ikasleen lehengo sindikatua sortu zen. Langileen mugimendu berria sortu zen: CCOO eratu ziren eta erregimenaren egiturak aprobetxatzeko estrategia burutu zuten, sindikatu bertikalean sartuz (Frankismoak zilegitzat jotzen zuen sindikatu ofizial bakarra). Orokorrean, oposizioaren indar politikoen artean, nabari agertu zen komunisten (PSUCek antolatuta) nagusitasuna eta, ordea, anarkismoaren indarraren galera, gerra zibila aurreko garaiarekin alderatuta.

**Katalanismo berria** ere azaldu zen 1950ko hamarkada erditik aurrera. Hasieran, CC (Crist-Catalunya), –Jordi Pujol zen alderdiaren burua–, taldearen inguruan katalanismo katolikoa antolatu zen, baina talde horrek gerra aurreko Lligaren politika kontserbadoreegia kritikatzeko zuen. 1959tik aurrera nazionalisten aldetik, Galinsogaren kontrako kanpaina hasi zen (La Vanguardia Española egunkariko zuzendaria, eta holakoak esaten zituen: “Katalan guztiak kaka zaharra dira”) eta Fets del Palau de la Música ere katalanismoari bultzada handia eman zion. Urte berean, Manifest Dels 100 katalan hizkuntzaren irakaskuntzaren aldeko manifestua sinatu zuten 100 intelektualek. Baina frankismo osoan zehar, eta, bereziki, 1960ko hamarkadatik aurrera, ezinbestekoa da aipatzea hainbat elkarte zibikok kultura katalanaren alde egin zuten lana, klandestinitatean, elizaren babesean edota era paralegala edo legalean: Escoltisme (mendizaletasuna); Castellars; dantza (sardanak) eta musika taldeak –Nova Cançó, aipamen berezia behar du, kultura katalanari egitura orokorra eman baitzion–; Omnium Cultural; Montserratren izandako ekimenak, *Serra d’Or* aldizkaria; elkarte pedagogikoak –Rosa Sensaten lana azpimarratzekoa da–; sari literarioak, liburuak eta zenbait aldizkari katalanez, etabar.

1960ko hamarkadaren hasieran FNC berrantolatzeke aukera izan zen, militante historikoak zein gazteak (unibertsitarioak, bereziki) batuz. Aurreko anbiguotasunari bukaera emanez, separatismo hitza baztertu zuten eta independentzia politikoaren

aldarrikapen argia egin zuten. Gainera, Joan Fusterren “Nosaltres els valencians” (1962an) obra arrakastatsuen testuinguruan, Herrialde Katalanak eremu katalan nazionaltzat hartu zituzten. Hurrengo urteetan, propaganda ekintzak eta kultura katalanaren aldeko lana aurrera eraman zuten FNCK. Baina laster, bi sektore ideologiko azaldu ziren aurrez aurre; alde batetik “goardia zaharra”, alderdia kontrolatzen zutenak, sozialismo auto-gestionarioaren aldekoak, eta, bestetik, belaunaldi eta gazte berriak, sozialismoa eta nazio-askapenerako mugimendu iraultzaileen aldekoak. Azkeneko horiek 1968ko irailean FNCKtik banandu eta 1969ko martxotik aurrera Partit Socialista d’Alliberament Nacional dels PPCC sortu zuten, independentzia, sozialismoa eta Herrialde Katalanak, lelo nagusia defendatuz. Identitate politiko berriak azaltzeko, zeinu propioak garatu zituen PSANek: estelada independentistari, izar zuriaren ordez, izar gorria, eta hirukiari hasieran zuria eta gero horia gehituz.

1960ko hamarkadan, Kataluniako oposizioaren indarrek plataforma politiko bateratuen alde hasi ziren lanean. Hasieran 1958-1968 urte tartean Comité de Coordinació Forces Politiques osatu zuten baina oso eragin txikia izan zuen, oposizioaren indar nagusia, PSUC alderdi komunista, kanpoan geratu zelako. 1969an, aldiz, Coordinadora de Forces Politiques de Catalunya sortu zen, komunistekin batera, eta, batez ere, 1971ko azaroan Assemblea de Catalunya sortu zen eta oposizio osoa bildu zuen. Azken horren leloak –“Llibertat, Amnistia, Estatut d’Autonomia”– arrakasta itzela izan zuen. Bai FNCK eta baita PSANek ere, estatutismoari uko egin gabe, parte aktiboa izan zuten A de C-n (Assemblea de Catalunya).

Frankismoaren azkenengo garaian talde politiko ugari sortu ziren. 1973an PSAN bitan banatu zen eta, irlandar erara, “ofizialak” eta “provisionalak” sortu ziren. ETaren miresmenari esker, talde armatu batzuk agertu ziren, FAC edo EPOCA, adibidez. 1974an, Convergència Democràtica de Catalunya, eratu zen, Pujol liderrarekin eta esparru sozialistan, “Convergència Socialista de Catalunya”.

## 2.2. GALIZIA

Gerra bukatu ondoren, PGk guztiz hondatuta geratu zen. Hala ere, Vigon militante gutxi batzuk berrantolatzeke ahaleginetan hasi ziren, eta, ondorioz, Ramon Piñeiro MGko buruzagia ohia, idazkari politiko izendatu zuten 1943ko azaroan. Ramon Piñeiro, Compostelan, harremanetan jarri zen beste indar klandestinoekin, Xunta Galegako bultzatutako Aliantza Demokratikoarekin, esate baterako.

Baina, galegismoaren indar nagusia erbestean kokatu zen frankismoaren lehenengo fasean, bereziki Argentinan, Castelao bertara ailegatu zenetik. Buenos Airesen,

Consello de Galiza eratu zen 1944an (Galiziako gobernu antzeko erakundea). Garai horretan bi korrante nagusi azaldu ziren: arredista eta federalista.

Castelaok idatzitako *Sempre en Galiza* (1. edizioa, 1944an; 2.a, 1960an) galegismoaren obra nagusia bihurtu zen. Gerra aurreko testamentu politikoa nazionalismo progresistarekin eta ezkertiarrekin lotzen zuen, Stalinen nazioaren definizio klasikoari jarraituz.

1944ko bukaeran, halaber, abenduaren 22an, Mexikon, Galizia, Euskal Herria eta Kataluniako alderdi politiko errepublikar gehienek, komunistak salbu, Galeuzca sinatu zuten, eta *Galeuzca* izenarekin aldizkaria argitaratu zen 1945eko abuztutik 1946ko uztailaren 12ra arte. Dena den, akordio horrek ez zuen arrakasta izan, Agirre lehendakariak eta Irla eta Castelao presidentetek hiru gobernuen arteko harremana hobetsi zutelako. Koiuntura horretan, era berean, Castelao Giral Errepublikako presidentearen gobernuan ministro izendatu zuten.

1950eko hamarkadan, birsortze nazionalista Galizia barruan hasi zen. Bi sorleku nagusi azaldu ziren. Vigon, Xaime Illa Couto eta Francisco Fernández del Riego izan ziren bultzatzaile nagusiak. Compostelako unibertsitatearen inguruan, Ramon Piñeiro eta Domingo Garcia Sabellen. Piñeiro izan zen taldearen burua, eta ekimen kulturaletara bideratu zituzten indar guztiak, eta ekimen politikoak baztertu zituzten. Horien lanari esker ekimen hauek bideratu ziren hurrengo urteetan:

- Galaxia argitaletxearen fundazioa, 1950eko uztailaren 25ean.
- *Grial* aldizkaria, 1951tik 1963ra bitartean.
- *Revista de Economía de Galicia*, 1957an.
- Patronato Rosalía de Castro, 1960tik aurrera.
- “Dia das Letras Galegas”, 1963an.
- Fundacion Fermin Penzol, Vigon, 1963an.

Horietaz gain, 1960tik aurrera berpizkunde kulturala ere azaldu zen. Elkarte kulturalak sortu ziren Galiziako leku askotan (O Galo, Compostelan 1961ean, eta O Facho, A Coruña, 1963an). Galegoz idatzitako poesiak indarra hartu zuen: Celso E. Ferreiro (*Longa Noite de Pedra* literatura-lana idatzi zuen), Mendez Ferrin eta Xose Neira Vilas dira egile aipagarri batzuk. Kantagintzan Voces Ceibes mugimendua sortu zen (Euskal Herriko Ez Dok Amairu eta Kataluniako Els Setze Jutges-en antzekoak).

Bi jarrera eta jarduera ezberdin azaldu ziren; alde batetik, erbesteko galegisten ekintzak, eta, bestetik Galizia barrukoenak. Diferentzia horiekin bukatzeko eta ados jartzeko asmoz, 1958an Perfecto Lopez, Argentinatik eta Xesus Canabal, Uruguaitik, Galiziara abiatu ziren, baina ez zuten haien helburua lortu:

Erbestean:

- Buenos Aires. Luis Seoaneren ekimenak: irratia, 1954tik 1971ra; *Galicia emigrante* aldizkaria 1954tik 1959ra bitartean. 1954an *Adiante* aldizkaria argitaratu zuten Mocedades Galegistasek, PG mantentzeko asmoz.
- Mexiko. 1953tik aurrera, Padroado da Cultura Galega do Mexico sortu zen. 1959tik aurrera, zuzendaritza aurrerakoiek hartu zuten erakundearen kontrola eta *Vieros* agerkaria argitaratu zuten. Aldizkari hori Galiziako barne zein kanpoko intelektualen topalekua bikainena bilakatu zen. Luis Soto komunistak koordinatu zituen lanak eta Carlos Velo Cobelas eta Florencio Delgado Gurriaránen laguntza izan zuen. Vierosek Portugalekin harremanak estutzearen aldekoa zen eta galegismo ezkertiarrena biltzea lortu zuen.
- Venezuela. 1958an Xosé Velo Mosquerak DRIL (Directorio Revolucionario Iberico de Liberacion) izeneko nazio-askapenerako mugimenduan parte hartu zuen, hainbat ekintzaile portugaldar eta katalanekin batera, Iberiar Penintsulako diktaduren aurka. Talde horrek zenbait lehergailu jarri zituen Donostian, Bilbon, Madrilen eta Bartzelonan, baina ekintza ezagunena, 1962ko urtarrilaren 21ean, Santa Maria izeneko transatlantikoa bahitzea izan zen (Operacion Dulcinea), Brasilen. Ekintza horren bidez, DRIL hainbat astetan munduko aldizkari garrantzitsuenetan agertzea lortu zuten. Salazar eta Francoren diktadurak salatzeko ekintza izan zen.

Galizian:

- Ramon Piñeiroren buruzagitzapean, ildo kultural eta apolitikoa bultzatu zen belaunaldia eta erreleboa sortu zen.
- 1954an, Santiagon, La Noite talde kultural galiziarra sortu zen.
- 1958an, Madrilen, ikaslek eta zenbait langilek Brais Pinto kultura-taldea sortu zuten, eta antifrankismoarekin eta askatasun nazionalaren aldeko mugimenduekin lotu zuten.

1958an Perfecto Lopez, Argentinatik eta Xesus Canabal, Uruguaitik, Galiziara abiatu ziren diferentzia horiekin bukatzeko –hots, erbesteko mugimenduaren eta Galizia barruko mugimenduen artekoa– eta jarduera bateratua aurrera eramateko eta akordio batera heltzeko asmoz, baina ez zuten haien helburua lortu. Horren ondorioz, 1960ko hamarkadan, bi korronte ideologiko azaldu ziren:

1.- Piñeireoren asmoa zen Mendebaldeko Europako politika-eredua Galiziara eramatea, hots, alderdi biko sistema sortzea: Demokrazia Kristaua eta Alderdi Sozialista. Azkeneko horrek arrakasta handiago izan zuen, eta 1963an abuztuaren 23an, A Coruñan PSGa sortu zen Piñeireoren babespean. F. Fernandez del Riego, C. Saco, M. Caamaño eta X. M. Beiras izan ziren buruzagi nagusiak, eta II Internazionalako alderdiekin harremanak sendotu zituzten. *Adiante* izeneko aldizkaria plazaratu zuten galegoz eta erdaraz, Kataluniako MSCren agerkariaren izena kopiatuz (*Endavant*). Hamarkada horretan, “Federalismo, Sozialismo, Demokrazia” lelopean, PSGren ildo nagusiak honako hauek izan ziren: ekonomia sozialista deszentralizatua eta bortizkeria politikoari uko egitea.

2.- 1964ko uztailaren 25ean, Santiagon, Brais Pinto talde kulturaletik, Union do Pobo Galego sortu zen. Bautista Alvarez Xosé eta L. Mendez Ferrin izan ziren buruzagi ezagunenak. 1960ko hamarkada horretan, indar gutxi izan zuten, eta unibertsitate-arlora mugatzen zen batez ere. Hala ere, Castrelo do Miñon egin nahi zuten urtegiaren aurkako kanpaina abiatu zuten 1965ean. UPGren agerkariaren izena *Terra e Tempo* izan zen eta taldearen bozeramaile gisa funtzionatzen zuen. III Internazionalaren hizkera eta alderdi komunista ortodoxoen izaera nabarmendu zen eta Piñeirismoaren kontrako kritika zabaldu zuten, eta haren ikuspuntu kulturalista eta “rexionalista” arbuatu zuten.

1970eko hamarkadatik aurrera, PSGa, Beirasen eskutik, erradikalizatu egin zen. Beirasen 1972ko *O atraso economico de Galicia* liburuaren abiapuntua hartu zuten eta bertan Galizia kolonia gisa definitu zen. 1973an UPGrekin batera testu bat adostu zuten: *Por una Galicia ceibe e socialista*.

UPGa, bere aldetik, zeinu berriak onartu zituen, besteak beste, anagrama: espiral antzarekin, eta igitaia eta mailua. Estrategia politikoa hiru zutabetan garatzen zuen: herri-borroka, borroka antiimperialista eta klase-borroka. Hasiara batean, fronte gisa eratuta zen, baina urteak pasa ahala, maoismoaren eragina gero eta handiagoa izan zen eta, ondorioz, “transmisio-uhalak” (correas de transmision”) izeneko egiturak sortu zituen sektore gehienetan: ERGA (ikasleak), Comisions Labregas, Union do

Traballadores do Ensino, da Banca, eta abar. 1973ko urtarrilaren 20an eta 21ean, Erbesteko I. Kongresua antolatu zuen Genevan. 1974ko otsailaren 3an, Bresteko gutuna (hitzaremena) sinatu zuen UDBrekin (Bretainia) eta IRM-Sinn Feinn ofizialarekin batera; eta, apur bat beranduago, HASekin (Herriko Alderdi Sozialista), Cymru Gochekin (Gales herri gorria), PSAN-provisionalarekin eta ECTrekin (Kataluniako iparraldekoa) sinatu zuen. 1974ko maiatzean, Galiziako Alderdi Komunistatzat hartu zuen bere burua, eta oinarri ideologikoa deklaratu zuen: marxismo-leninismoa, Mao Tse Tung pentsamenduaren arabera. Hurrengo urtean, Asemblea Nacional-Popular Galega elkarteak bultzatu zuen eta, Portugalen Klabelekin Iraultzaren ondoren, borroka armatua garatzearen aldeko jarrera erakutsi zuen, 1974ko apirilaren 25etik aurrera.

Beramendiren ustez, galegismoaren ezaugarri orokor batzuk defini daitezke frankismoan:

- 1.- Tradizionalismo ideologikoa galegismoaren desagerpena.
- 2.- Nazionalismo kristauaren garapena –ez tradizionalista, demokrata baizik–.
- 3.- Galegismo liberalaren birformulazioa.
- 4.- Marxismoaren agerpena eta nagusitasuna.

## 2.3. EUSKAL HERRIA

Hego Euskal Herrian, Juan Ajuriagerra buruzagia presondegitik ateratzeaz batera, 1943tik aurrera, EAJren berrantolaketa eta erresistentzia ekintzak hasi ziren.

Erbestean, Frantziako alemaniarren okupazioa bukatu zenean, Eusko Jaurlaritzak birstortu egin zen, Baionako hitzarmenari esker. Hasiera batean, frankismoaren aurkako euskal oposizio osoarekin (Gerra Hotza hasi zenean komunistak aldendu egin ziren). 1945eko martxoaren 31an sinatutako hitzarmen horren zutabe nagusiak hauek izan ziren: 1931ko konstituzio errepublikarra, 1936ko estatutua, eta Agirreraren lehendakaritza.

1947ko Maiatzaren Lehenean, Euskal Herrian izandako greba orokorra izan zen azken ahalegin propagandistikoa frankismoarekin bukatzeko, baina alferrik suertatu zen. Gerra Hotzari esker, frankismoa egonkortu egin zen eta pixkanaka-pixkanaka gerra aurreko indar politikoak ahuldu egin ziren.

Hurrengo hamarkadan, berriz, erbesteko garrantzia apalduz joan zen heinean, oposizio berria hasi zen sortzen belaunaldi-errelebo baten barruan. 1951n, Bilbon, aranismoa sortu zen toki berean, unibertsitateko ikasle batzuek EKIN talde abertzalea sortu zuten. EAJri ekintza eza eta proamerikanismoa kritikatzeko zizkioten, besteak beste, eta 1958an alderdi horrekin apurtu zuten, eta urte horren bukaeran ETA sortu zuten.

Lehenengo erresistentzia-ekintzen ondoren, ETAREN Lehenengo Asanblada antolatu zen 1962ko maiatzean. Bertan, independentzia argi eta garbi aldarrikatzeaz gain, oinarri hauek onartu ziren: nazio-askapenerako mugimendu iraultzailea, akonfesionala eta hizkuntza eta euskal kulturaren defentsa. Hori guztia, biolentziari aipamen zuzenik egin gabe.

1963ko martxoan burututako II Asanbladatik aurrera, hirugarren munduko nazio-askapenerako mugimenduen eredu egonkortu zen ETAREN barruan, eta Euskal Herria frankismoaren menpe zegoen kolonia antzeko bat zela onartu zen, F. Krutwigek *Vasconia* liburuan egindako sistematizazioa kontuan hartuta. Horren ondorioz, gerra iraultzailearen kontzeptua garatu zen ETAREN barruan. Marxismoaren hizkera gero eta presentegorekin batera, langile-ildo (obrerista) zabaldu zen, Patxi Iturrioren gidaritzapean, baina 1966ko ETAREN V. Asanbladaren lehenengo zatian, Branka taldekoek (Txillardegia, Krutwig...) bat egin zuten Txabi Etxebarrietak burutzen zuen taldearekin eta, ondorioz, espaniolistatzat deklaratu zuten Iturrioren estrategia eta ETAtik kanporatu zuten. Azken horiek ETA Berria izeneko taldea sortu zuten.

1967ko martxoan, ETAREN V. Asanbladaren bigarren zatian, Txabi Etxebarrietaren sektorearen planteamenduak nagusitu ziren: ETAK nazio-askapenerako euskal mugimendu sozialista gisa definitu zuen bere burua, eta "Euskal Herriko Langileria" kontzeptuak aurrera egin zuen. Tarte horretan, lehenengo ekintza armatuak burutu ziren, hala nola, banku-lapurreak, lehergailuen bidez eginiko lehenengo atentatuak, ... Hurrengo urtean, ekainean, Pardines goardia zibila eta Txabi Etxebarrieta hilik suertatu ziren ETAREN ekintza baten ondorioz, eta, abuztuan, ETAK jauzi kualitatiboa eman zuen Meliton Manzanaskomisarioa hil zuenean. Akzio-errepresio-akzioaren estrategia aurrera eramanez ETAK; Estatuak, ordea, salbuespen-estatuak eta errepresio bortitza.

1970ean, poliziak atxilotuak ugari egin eta gero, ETA bitan banatu zen. Alde batetik, V asanbladaren jarraitzaileak zeuden, izaera abertzaleagoa zutenak (Beltza, Krutwig, Madariaga, Etxabe, besteak beste); bestetik, VI asanbladakoak, langileen mugimendua zen haien ardatz nagusietariko bat, eta, denborarekin, troskismoranzko eboluzioa hartu zuten. 1970ean abenduan, Burgoseko Epaietaren inguruan (ETAko hainbat ekintzaile heriotz-zigorren kondenatuak izan ziren), frankismoaren kontrako

inoizko mobilizazio handienak gertatu ziren, eta horri esker kondenatuei (Onaindia, Izko, Uriarte, Gorostidi... guztira 16 kide) inposatutako heriotza-zigorrak kendu zieten.

1972-73 tartean, ETAREN V Asanblada nagusitu zenean, langileen mugimenduari laguntzeko asmoz, eta, greba orokor baten erdian, ETAK bi enpresari bahitu zituen (Zabala eta Huarte). Baina zalantzarik gabe, oihartzun handiena hartu zuen ekintza Carrero Blanco Espainiako gobernuaren presidentearen hilketan izan zen, 1973ko abenduaren 20an, Madrilan. Hala eta guztiz ere, trantsizioa garaian bitan banatuta agertu zen ETA: ETA militarra eta ETA politiko-militarra. Aurreko banaketetan ez bezala, hausturaren arrazoia ez zen ideologikoa izan, estrategikoa baino. Lehengoek ildo militarra eta politikoa batera joan behar zirela defendatzen zuten, zuzendaritza organiko berarekin; bigarrenenok, ordea, uste zuten ildo politiko eta militarra bereizi egin behar zirela, hots, bi erakunde ezberdin izan behar zutela.

## **2.4. ONDORIOAK (HARREMANAK ETA HIRU MUGIMENDUEN ARTEKO BERDINTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK): NAZIONALISMO ERRADIKAL BERRIA (1959-1975)**

Hiru kasuetan (Galizia, Katalunia eta Euskal Herrian) frankismoaren azkeneko garaian (1959tik 1975era bitartean) nazionalismo erradikal berria sortu zen. Nahiz eta elkarren artean kontaktu eta harreman gutxi izan, kausa, ezaugarri eta etapa komunak izan ziren nazionalismo erradikal eta berri horietan.

### **2.4.1. Diskurtso nazionalista berriaren agerpenaren kausak:**

Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian 1950. hamarkadatik aurrera, hazkunde ekonomiko arina eta sakona izan zen, eta horrek berebiziko eragina izan zuen nazionalismo berrien sorreran, hori zen-eta egoerarik egokiena ideologia berriak sortu eta identitate ereduak aldatu zitezten:

- Biziraupen nazionalaren kontrako erasotzat hartu ziren eraldaketa ekonomiko, sozial eta kultura horiek. Aldaketa horiek beldurrak eta ziurtasun falta sortu zituzten.
- Horren ondorioz, identitate-defentsarako prozesu bat zabaldu zen estimulerantzun erreakzio bat piztu.

### **2.4.2. Diskurtso nazionalista berriaren ezaugarri nagusiak.**

Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian diskurtso nazionalista komun bat agertu zen, eta, gainera, urte gutxi batzuetan, nazionalismo erradikalak ildo ideologiko berria eraikitzeko gai izan zen. Horren azkar eraikitzeko arrazoiak hauek izan ziren:

- **Diskurtso ideologikoaren eremuak.** Erakunde nazionalistetan oso garrantzi handia dauka diskurtso ideologikoaren eremuak berak, egitura organikoaren edota mobilizaziora eremuak baino.
- **Erakunde nazionalistek hiperideologismorantz abiatzeko duten joera.** Frankismoren menpean, erakunde antifrankista guztiek, nazionalistek ere, diktaduraren jarrera itxiaren aurkako ideologizazio izugarria erakutsi zuten.
- **Intelektualen protagonismoa.** Intelektualak izan ziren biziraupen nazionalerako (benetako ala itxurazko –honek berdin dio–) arriskuen berri eman zuten lehenak, eta egoera beltzaren interpretatzaile gisa, haiek bihurtu ziren diskurtso berriaren eraikitzearen arduradun nagusiak. Hala ere garai horretako intelektualek zenbait ezberdintasun azaldu zituzten, aurreko garaiekin alderatuta:
  - ✓ Gazteagoak ziren.
  - ✓ Politikari ekiteko gogo bizia zuten, bide politikoa jorratzeko nazionalista zaharren ezetzaren aurka, Errepublika eta Gerra Zibilaren giroa gainditzeko nahiak bultzatuta.
  - ✓ Pauperizazio prozesuaren bitartez, sektore sozial xumeagoarekiko hurbiltasun handia zuten.
- **Unibertsitateak izan zuen eragina.** Nazionalista berrientzat, Galizian, Katalunian eta Euskal Herrian, unibertsitatea mugimendu antifrankistarako topagune bikaina izan zen.
- **Eduki hiritarra.** Nazionalismo berriaren edukia guztiz hiritarra izan zen hiru kasuetan, Galizia barne, atzerapen ekonomikoa jasan arren.

#### **2.4.3. Diskurtso nazionalista berriaren bereizgarri garrantzitsuenak.**

**Bereizgarri erradikala.** Hiru kasuetan, diskurtso berriaren eraikitze-prozesua baldintzatzen zuen faktore nagusia frankismoa zen.

- Frankismoak berrindartzen zuen subjektu nazionalisten kontrako erasoaren irudia, eta, horri esker, aipatutako estimulu-erantzun erreakzioa.

- Espainiarra ez zen edozein adierazpen nazionala eginez gero, frankismoaren instituzioen aldetik, nazionalismo azpi-estatalen kutsu erradikaltzat hartzen zen, eta, beraz, adierazpenok zigortzekoak ziren. Horrelako neurriek erregimenaren kontrako jarrerak areagotzen zituen.
- Frankismoaren politikak sektore antifrankista guztiak nazionalismo berrira hurbiltzea eragin zuen.

Ondorioz, frankismoaren sasoi honetan, hiru nazionalismoen diskurtso ideologikoan osagai ideologiko erradikalenak aurkitu daitezke:

- ✓ Arlo sozialean. Garai hartan modan zeuden iturri progresistenak (marxismoa lehendabizi eta nazio-askapenerako mugimenduak) erabili zituzten.
- ✓ Nazionalismo arloan: tradizio erradikalenak berreskuratuz, aldarrikapen independentistekin bat egin zuten hiru kasuek.

**Bereizgarri etnizista** F. Barthekek interpretatzen duen gisara, kanpoko erasoaren aurrean, etnizismoa erabiltzen da talde etnikoa bereizten omen duten sinboloak berrindartzeko. Sinbolo horien artean, arraza baztertuta izan ondoren, hizkuntzak nagusitasuna lortu zuen, 3 kasuek baitzuten ofiziala ez zen, –are gehiago, frankismoak debekatu egiten zituen– hizkuntza propioa (katalana, galegoa, euskara). Beraz, hiru herrialdeetan muga nazionalak birplanteatzeko ahaleginak azaldu ziren hizkuntza propioaren arabera:

- Lusismoa. Galiziako eremu nazionalak galego-portugaldarraren espazio-tokian kokatzea.
- Països Catalans. Katalanaren eremura zabaltzea nazio-esparru katalana.
- F. Krutwig-ek egindako proposamena, euskal esparrua nazionala Biarno, Errioxa edota Ebro ibairaino zabaltzeko.

#### **2.4.4. Diskurtso nazionalista berriaren garapenaren faseak:**

**1. Fasea. Sorrera (1959-1962):** Lehenengo fase honetan, nazionalismo “zaharra” eta “berria”ren arteko desberdintasunak gero eta handiagoak egin ziren, bigarren horrek aurrekoarekin moztuz.

- 1950eko hamarkadatik aurrera, nazionalismo berriaren sorrera azaltzen dituzten kausak abian jarri ziren.
- Unibertsitatean, hausnarketarako eta ikerketarako eszenatokia eta diskurtso berriaren lehenengo zutabeak eraiki ziren.
- Pixkanaka, nazionalismo berria sendotuz joan zen. 1960ko hamarkadaren hasieran, nazionalismo zaharrarekin hautsi zituzten harremanak, izandako tirabiraren ondorioz –beren arabera, nazionalismo zaharrak ez zuen gaurkotzeko eta aldatzeko borondaterik erakusten–.

**2. Fasea. Egituraketa (1963-1968):** Bigarren honetan, nazionalismoaren bereizgarri erradikalak eta etnizistak bete-betean garatu ziren, eta, horri esker, diskurtso nazionalista berriaren eraikitze-prozesua areagotu zen.

- Nazio-diskurtso berria eraikitze prozesuan, intelektual gazteek Hirugarren Munduko nazio-askapenerako mugimenduak eredutzat hartu zituzten, eta “ispilu kolonialista” sortu zen, Euskal Herrian eta Galizian, batez ere.
- Nazionalismoa iraultzaileen estrategia bilakatu zen. Alienazioa, langileria-nazio zein herri langilearen kontzeptuen erabilera ugaritu zen, borroka armatuarekiko miresmena ahaztu gabe.
- Lehenengo erakunde politiko berriak eratu ziren, diskurtso nazionalista berriarekin.

**3. Fasea: Hasierako garapena (1969-1973):** Nazionalismo erradikal berriari jarritako erronka nagusia esparru politiko propio bat definitzea izan zen.

- Sortutako erakunde berriek heldutasun maila zein esparru politiko propioa bilatu behar zuten, eta, ondorioz, errealitatetik hurbilago ibiltzeko premia izan zuten. Hirugarren Munduko nazio-askapenerako jarrera mimetikoegiak baztertu zituzten.
- Hirugarren fase honetan, “hiperleninismoa”-ren aldeko joera nabarmendu zen Euskal Herrian, 1970-eko Burgosko Epaiaketaren inguruko mobilizazioei esker, eta, Galiziaren kasuan, 1972 urtean Ferrolen eta Vigon izandako langileen istiluei esker. Bigarren aldiko maoismoa nagusitu zen eta, aurreko

antiinperialismoa ahazturik, maila organikoari lehentasun handiagoa eman zitzaion, eta erakundeek egitura itxiagoa hartu zuten. Beraz, erreferenteak europarragoak izan ziren.

1974tik aurrera, hau da, Franco hiltzear zegoela, eta frankismoaren krisia larriagotzen hasi zenean, praxi eremuari lehentasuna eman zitzaion, eta ideologismoa eta erradikalizazioa baretu egin ziren, hirugarren fase bukatuz, eta, oro har, prozesuari amaiera emanaz.

Ondorioz, nazionalismo berriaren erakunde politikoak zatitu egin ziren: Kataluniako PSAN (Partit Socialista d'Alliberament Nacional dels Països Catalans) –irlandar erarabitan banatu zen (“ofizialak” eta “provisionalak”), ETA (Euskadi ta Askatasuna) ere bitan banatu zen (“militarrak” eta “politiko-militarrak”) eta UPGn ere barne arazo larriak gertatu ziren.

Baina banaketen kausak, aurrekoan ez bezala, ez ziren ideologikoak izan, estrategikoak eta organikoak baizik. Aurreko difusionismo (hiru mugimenduen arteko harreman, elkartruke eta loturak) urriari bukaera eman zitzaion.

Hiru mugimendu nazionalisten garapenean, lehengo fasearekin alderatuta, Kataluniak protagonismoa galdu zuen, eta, dudarik gabe, bigarren fase horretan, euskal nazionalismo erradikalak –beste nazionalismo erradikalen aldean– nagusi zela erakutsi zuen. Gauzak horrela, soilik euskal mugimendu abertzale erradikalak lortu zuen esparru politiko propioa sustraitzea –ez, ordea, Kataluniako eta Galiziako garai hartako nazionalismo berriek– eta helburu hori lortzeko ezinbesteko gertatu zitzaion bide armatuak eragin zion sinkretismoa, eta horrek sortu zuen errepresioaren aurkako erantzun itxia eta bateratua.